Udalbatzak, bi mila eta hemezortziko abenduaren hogeian izan zuen osoko bilera ohikoan, EH BILDU taldeak Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko 1. epaitegiaz aurkeztutako mozio arrunt bat onartu zuela, lau zuzenketa sartuta, Donostiako Sozialistak taldeak egindakoak. Hiru aurrenekoak, erabaki zatiko 1.go, 2.go eta 3.go puntua aldatzeko; eta 4.ena, erabaki zatiko 4. puntua kentzeko. Horrenbestez, hauxe da azkenean onartu zen testua:

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veinte de diciembre de dos mil dieciocho, aprobó la siguiente Moción Ordinaria presentada por el Grupo EH BILDU sobre la situación del Juzgado de violencia sobre la mujer nº1 de Donostia, que incorpora cuatro enmiendas aprobadas, presentadas por el Grupos Socialistas Donostiarras, las tres primeras de modificación de los puntos 1º, 2º y 3.ero de la parte resolutiva y la cuarta, de supresión del 4º punto de la parte resoluctiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*“Duela gutxi jakin dugu, bi txostenen bidez, zer egoeratan dagoen Donostiako Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko 1. Epaitegian (EAIE, aurrerantzean) aritzen den lantaldea. Txosten horiek iritsi dira gai honetan zeresana duten erakundeen, Udal honetako taldeen eta Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkideen eskuetara. Laburbilduz, esan daiteke epaitegiko lantaldeari baliabide egokiak falta zaizkiola zoritxarrez handituz doan lana egoki egiteko. Txostenek honako hau diote, hitzez hitz:*

*“Recientemente hemos tenido ocasión de conocer la situación del colectivo que atiende el Juzgado de Violencia Sobre la Mujer - nº 1 de Donostia (en adelante JVSM), a través de sendos informes que también han sido remitidos a las diferentes partes directamente afectadas así como a grupos municipales de este Ayuntamiento y parlamentarios del Parlamento Vasco. Resumidamente se evidencia una carencia de medios adecuados y necesarios para que el Juzgado realice la*

*labor encomendada y lamentablemente creciente. Señalan los informes literalmente los siguientes extremos:*

*“Donostiako EAIE epaitegi misto bat da, bi ordena jurisdikzionaletan aritzen dena: penala eta zibila. Instrukzio epaitegi bat eta epaitegi zibil bat da, familia arloan espezializatua, eta, instrukzio epaitegi gisa, guardiako epaitegi modura dihardu egunero emakumearen aurkako indarkeriari lotutako kasuetan.*

*“El JVSM de Donostia es un juzgado mixto que interviene en dos órdenes jurisdiccionales distintos: penal y civil. Es un juzgado de instrucción y un juzgado civil especializado en materia de familia y como juzgado de instrucción actúa diariamente como juzgado de guardia en materia de violencia sobre la mujer.*

*Epaitegira iristen diren zigor prozedura ia denak premiazko eginbideak dira. Egunero, beraz, EAIEan agertu behar dute ikertuek, biktimek eta lekukoek, edozein guardiako epaitegitan bezala, atestatua jasotzeaz batera lehenengo jardun prozesalak egiteko (deklarazioak, eskubideen instrukzioak, entzunaldia, etab.).*

*La casi totalidad de los procedimientos penales que tienen entrada en el juzgado lo hacen como diligencias urgentes. Diariamente, por tanto, investigados, victimas y testigos son conducidos o comparecen citados al efecto en la sede del JVSM, como en cualquier juzgado de guardia simultáneamente al recibo del atestado, a fin de serles practicadas las primeras actuaciones procesales (declaraciones, instrucciones de derechos, audiencia etc.).*

*Tramitazioaz arduratzen diren funtzionarioek (emakumeak denak) –kudeatzaileak eta tramitatzaileak– premiazko eginbideetan egiten diren deklarazio eta entzunaldietan egon behar dute egunero, eta deklarazioen grabaketa eta markaketa lanak egiten dituzte, gero eginbide guztiak paperera pasatzeko, ez baitago espediente digitalik. Eguneroko lan horrek… eragotzi egiten die eginbideez arduratu behar duten funtzionarioei tramitatu ere egiten dituzten gainerako prozedurez arduratzea (penalak eta zibilak).*

*Las funcionarias responsables de la tramitación, Gestoras y Tramitadoras, diariamente están presentes en las declaraciones y audiencias que se practican en las diligencias urgentes, realizando las tareas de grabación y marcado de intervenciones para posteriormente documentar en papel, al no existir el expediente digital, todas las actuaciones. Dicha actividad diaria ... impide a las Funcionarias a las que les son asignadas las diligencias, dedicarse durante la jornada al resto de los procedimientos que también tramitan, penales y civiles.*

*Funtzionario hauen ahalegin eta dedikazioaren ondorioz, lanaldia luzatu behar izaten dute ia egunero,… eta txandak ezarri dira funtzionarioentzat, magistratuarekin eta justizia administrazio letratuarekin batera eginbideak amaitu arte epaitegian gelditzeko”.*

*El esfuerzo y dedicación de estas Funcionarias les obliga casi diariamente a prolongar su jornada,... habiendo sido establecido a tal efecto un turno de permanencia de Funcionarias que junto con la Magistrada y el LAJ (Letrado de Administración de Justicia), permanecen en las dependencias del juzgado hasta la conclusión de las diligencias.”*

*Txostenak datu konparatiboak ematen ditu aztertutako kasu kopuruez eta ebazpen ratioaz, eta, hori guztia kontuan hartuta, hainbat neurri proposatu eta justifikatzen ditu, “unitate judizial*

*El informe detalla datos comparativos sobre el número de asuntos atendidos y ratio de resolución y en base a todo ello propone y justifica una serie de medidas según dice*

*honetan lan egiten duten kudeatzaileen eta tramitatzaileen lan baldintzak larriagotu daitezen saihesteko, gaur gaurkoz arriskuan dituztenak beren lan osasuna eta lan baldintzak, zeinak eragina baitu ere EAIEak ematen duen zerbitzuaren kalitatean". Hori guztia kontuan izanik, eskatzen du: 1. errefortzuko bi tramitatzaile izendatzea, eskaeraren "premia" nabarmenduta, arrazoitzat harturik lan karga, lantaldean eta funtzioetan egin diren aldaketak, eta tramitazioetan dauden atzerapenak; 2. tutoretza edo formakuntzarako ordu kopurua areagotzea; 3. Fiskaltzaren presentzia iraunkorra; eta 4. epaitegiaren instalazioak egokitzea.*

*literalmente "para evitar una agravación de las condiciones laborales de las Gestoras y Tramitadoras que trabajan en esta Unidad Judicial que en este momento están poniendo en riesgo su salud laboral, condiciones laborales que ademas, repercuten en la calidad de servicio que presenta el JVSM.". Así en base a todo ello, solicita 1º el nombramiento de dos tramitadoras de refuerzo, subrayando el "carácter urgente" de la solicitud, justificado por la carga de trabajo, diferentes cambios que han dado tanto en la plantilla como en las funciones de quienes la integran y evitar retrasos en las tramitaciones; 2º la ampliación de número de horas de tutoría o formación; 3º la presencia física permanente de la fiscalía y 4º la adecuación de las instalaciones del Juzgado.*

*Bere garaian, Eusko Legebiltzarrak eskatu zion Eusko Jaurlaritzari hainbat neurri har zitzala Justizia Sailaren bidez eta beste erakunde batzuekin elkarlanean (EAEko Auzitegi Nagusia, Abokatuen Elkargoak…), Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegien egoera hobetzeko. Hala eta guztiz ere, urtebete igaro da harrez geroztik eta, esan den bezala, Donostiako epaitegiaren egoera ez da batere egokia egin behar duen lana taxuz egiteko.*

*Ya el Parlamento Vasco instó al Gobierno Vasco a realizar diversas acciones en su correspondiente Departamento de Justicia y en colaboración con diversas instituciones (Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, Colegios de Abogados…) respecto a la situación de los Juzgados de Violencia de la Mujer. Sin embargo después de más de un año la situación del de la capital guipuzcoana es, como se ha señalado, nada acorde con las necesidades que debe atender.*

*Kontuan izanik Udal honen kezka genero indarkeriarekin lotutako gaiekiko eta alor honetan hartu dituen konpromisoak (indarkeria hori desagerrarazteko eta biktimei laguntzeko programak eta ekintzak martxan jartzea), ezinbestekoa da erreparatzea gure udal mugartean lan honetaz arduratzen den epaitegiaren egoerari eta beharrei, haren zereginak osatu egiten baitu udal zerbitzuetatik egiten den ahalegina. Ezinbestekoa da EAIEak egoki funtzionatzea udal programen garapen egokirako.*

*Teniendo en cuenta la preocupación de este Ayuntamiento por todas las cuestiones relacionadas con la violencia de género y los firmes compromisos adquiridos por el mismo desarrollando programas y acciones para su erradicación y para la atención de sus supervivientes, resulta imperioso prestar atención a la situación relatada y las necesidades señaladas en el Juzgado que se ocupa de esta materia dentro de nuestro término municipal, dado que su actuación es complementaria a los esfuerzos que se impulsan desde los servicios municipales. El buen funcionamiento del JVSM debe ser una garantía para el desarrollo complementario de los programas municipales.*

*MOZIO ARRUNTA*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*1. Donostiako Udalak hertsatuki eskatzen dio*

*1. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián*

*Eusko Jaurlaritzari jarrai dezala Donostiako Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegia beharrezko giza eta gauza baliabidez hornitzen, bai eta genero indarkeriaren biktima izategatik erkidegoko auzitegi eta epaitegietatik igarotzen diren emakume eta adingabeentzako arreta hobetzen ere.*

*2. Donostiako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusiari berrets diezaiola Donostiako Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiari atxikitako fiskalak etengabe egon beharra.*

*3. Donostiako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Donostiako Epaitegiaren instalazioetako beharrak aztertu ondoren, epaitegiko espazioak egokitu ditzala, lan egiteko eta egoteko baldintzak hobetu ahal izateko, kudeatzaile eta izapidegileei zein biktima eta senideei begira”.*
=====================================

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hemeretziko otsailaren hogeita bian.

ALKATEAK O. E. /.

V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso”.

*solicita al Gobierno Vasco que siga dotando al Juzgado de Violencia sobre la Mujer de Donostia/San Sebastián de los medios, tanto personales como materiales, necesarios y seguir mejorando la atención a mujeres y menores víctimas de Violencia de Género en su paso por los Juzgados y Tribunales de nuestra Comunidad.*

*2. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián solicita al Gobierno Vasco que reitere a la Fiscalía Superior de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la presencia permanente de los o las fiscales adscritas al JVSM de Donostia / San Sebastián.*

*3. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián solicita al Gobierno Vasco que analizadas las necesidades de las instalaciones del Juzgado de Donostia / San Sebastián adecúe los espacios del juzgado con el objeto de mejorar las condiciones de trabajo y de estancia tanto de gestoras y tramitadoras como de víctimas y familiares”.*
=====================================

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a veintidós de febrero de dos mil diecinueve.

---------------

**II.2**

**KONTROL MOZIOAK**

**II.2**

**MOCIONES DE CONTROL**

**II.2.1. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, hiriko sarbideen ingurukoa.**

“Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hiriko sarbideen inguruko egoera dela eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Gune Publikoen Batzordean 2019ko otsailaren 11ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Pilar Arana zinegotzi delegatuak, 2017ko azaroaren 14an, auzotarrekin Udalbatzar Aretoan egindako bileran, Carlos I.eko “tablero” azpiko pasabidean egin behar ziren hobekuntza batzuen zirriborroa aurkeztu zuen. Oraindik ere ez da gauzatu. Gainera, berak esana, errepidea ez dute ukituko eta trafikoa moteltzeko neurririk ez da ezarriko.

Bestalde, Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak hiriko sarbideak aztertzeko sinatutako hitzarmena dela-eta, Marrutxipin egin beharreko asmoari buruzko berria eman zenean, delegatuari informazioa eskatu genion, baina ez genuen lortu, eta horregatik, agerraldia eskatu dugu. Delegatuak hitzarmenaren berri emateko, agintaldi osoan, udal taldeekin bilera bakar bat ere ez du egin, eta gaiak garrantzia duela ezin da ukatu.

Gobernu programak Carlos I.ari buruz dioena denok dakigu. “Martuteneko biribilgunea

**II.2.1. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU relativa a los accesos a la ciudad.**

“Josu Mirena Ruiz, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, sobre el estado de los accesos a la ciudad, a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público el 11 de febrero de 2019.

JUSTIFICACIÓN

La concejala delegada Pilar Arana, en la reunión celebrada en el Salón de Plenos con el vecindario de la zona el día 14 de noviembre de 2017, presentó el borrador de algunas mejoras que pretendían realizarse en el paso bajo el tablero de Carlos I. Sin embargo, a día de hoy, aún no se han ejecutado. Además, según explicó la Sra. concejala, la carretera no iba a resultar afectada ni se iba a adoptar ninguna medida para ralentizar el tráfico.

Por otro lado, cuando, en relación con el convenio suscrito entre la Diputación Foral y el Ayuntamiento de San Sebastián para estudiar los accesos a la ciudad, se dio a conocer la solución de Marrutxipi, solicitamos información a la delegada, pero, aún no la hemos obtenido, y, por ello, hemos solicitado su comparecencia. La delegada no ha llevado a cabo ni una sola reunión, en toda la legislatura, con los grupos municipales para informar sobre el convenio. Y es innegable que la cuestión es importante.

Es sabido que el programa de gobierno afirma, en cuanto a Carlos I, que se reformará la

berrituko dugu" eta "saihesbidearekiko konexioa gauzatuko dugu Marrutxipin" ere esaten da. Gure harridurarako Hitzak Ekintzak atariak gai honi buruz hauxe dio: "Marrutxipiko aukera eta Martuteneko biribilgunea aztertu, Carlos I.ean lanean jarraitzeko. Abian % 50".

rotonda de Martutene, así como que se ejecutará la conexión con la variante en Marrutxipi. Para nuestra sorpresa, en la sección "Hitzak, ekintzak" se habla de estudiar la opción de Marrutxipi y la rotonda de Martutene, para seguir trabajando en Carlos I, y se califica el estado de esta acción como "en curso: 50 %".

Alkateak urte hauetako lana ontzat eman zuen. Aldundia Astigarragatik 27. poligonora eramango duen errepidearen proiektua lantzen ari dela eta Marrutxipin lotura berri bat egiteko, mugikortasuneko udal atalak egindako lanagatik, aurreproiektua prestatzen ari omen dela ere esan zigun Alkateak. Gobernu programa ez dutela gauzatu argi dago baina "hitzak eta ekintzak" programan %50ean bete dela babestu zuen, Udal Gobernuak ahal duen guztia egin omen duela esanda; beraz lorpenetan ehunekoa zein den nahiko argi dago.

El alcalde dio por bueno el trabajo realizado en estos años. En relación con el proyecto viario en el que la Diputación está trabajando para construir un nuevo acceso en Marrutxipi, que enlazará Astigarraga con el polígono 27, el alcalde señaló que la Dirección de Movilidad está preparando el anteproyecto. Es evidente que no se ha ejecutado el programa de gobierno, pero, a pesar de ello, el alcalde defendió que en la sección "Hitzak eta ekintzak" su cumplimiento se califique con un 50 %, con el argumento de que el Gobierno Municipal ha hecho cuanto estaba en su mano; por tanto, está bastante claro cuál ha sido porcentaje alcanzado en cuanto a logros.

Informazioa jasotzeko ere beti arazoak izan ditugu, eta ez bakarrik Udal taldeok, auzotarrek ere bai. Hori dela eta Udal Gobernuari Carlos I.ko auzotarrekin informazio bilera egitea eskatu genion. Orain Marrutxipin egoera errepikatu egin da, hau da, bertakoek informaziorik ez dute jaso.

Por otro lado, siempre hemos tenido problemas para recibir información, y no solo los grupos municipales, sino también los vecinos y las vecinas. Es por ello por lo que solicitamos al Gobierno Municipal que convocara al vecindario a una reunión informativa. Esta situación se ha vuelto a repetir en Marrutxipi, ya que los vecinos y vecinas no han recibido ninguna información.

MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, Marrutxipiko bide lotura dela eta Udal Gobernuak dituen azterketak zintzotasunez auzoan bertan auzotarrei bi hilabeteko epean informa diezaiela, auzotarrek dituzten zalantzak argi ditzaten eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

MOCIÓN

1.- El Pleno de San Sebastián solicita al Gobierno Municipal que, en el plazo de dos meses, informe con honestidad al vecindario, en el propio barrio, de los estudios de los que dispone, para que los vecinos y vecinas de la zona puedan aclarar sus dudas y tengan la oportunidad presentar las aportaciones que

estimen oportunas.

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián, 15 de febrero de 2019

Josu Mirena Ruiz Martín,
concejal del grupo municipal EH BILDU".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Pilar Arana Perez andreak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Josu Ruiz Martín, D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal, D.ª Pilar Arana Pérez y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.2. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Tabakalerako UBIK liburutegiko lan gatazkan inplikatzeari dagokiona.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko otsailaren 11ko Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

**II.2.2. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre el conflicto de Tabakalera.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios a las Personas del 11 de febrero de 2019.

JUSTIFICACIÓN

Iazko abenduaren 22tik greba mugagabean daude TABAKALERA zentroko Ubik mediatekako bitartekariak beren baldintzak direla-eta. Gatazka luzea da, Udalean ere hizpide izan dena, Udaleko inplikazioa beharrezkoa zelakoan, batetik, eta bitartekariek beraiek Udalbatzako kideok interpelatu dituztelako, bestetik. Berriz ere joan den urtarrilaren 23an zuzendu ziren Udalbatza osatzen dugun kideongana hilabete bat greban eginda inongo berririk ez zutelako. Horren ostean jakin dugu hurrengo egunetan hainbat bilera izan zirela eta berriz hurrengo asterako geratzeko asmoa omen zagoela.

Desde el 22tik de diciembre del pasado año, los mediadores y mediadoras de la mediateca Ubik de TABAKALERA están en huelga indefinida, en protesta por sus condiciones laborales. Se trata de un conflicto largo, que también ha sido tratado en el Ayuntamiento, porque, por un lado, se consideraba necesario que éste se implicara y, por otro, porque las propias personas en huelga han interpelado a las y los miembros de la Corporación. El pasado 23 de enero se volvieron a dirigir a los corporativos y corporativas, porque no habían tenido ninguna noticia nuestra durante el mes que ya llevaban en huelga. Después, hemos sabido que, en los días posteriores, se llevaron a cabo varias reuniones y que, según parecía, se tenía la intención de volver a celebrar reuniones la semana siguiente.

Greba mugagabea dela kontuan hartuta, eta, ondorioz, zerbitzua publikoari itxita geratu dela jakitun bilerak astez aste egiten ari zirela jakitea gatazkari irtenbide emateko erritmo moteltzat jo genuen. Halaber CICC SA / TABAKALERA zentroko presidentea Goia alkatea den neurrian Udalaren inplikazio handiagoa izatea beharrezkoa delakoan iritzita gaude, irtenbide negoziatu eta egokia aurkitzekotan. Horregatik interpelazioa aurkeztu genion alkateari, Kulturako zinegotziak erantzun ziguna pasa den hilaren 11n. Bere erantzunen bidez jakin dugu, alkateak bilera bakarra egin duela urtarrilaren 14an eta ez dagoela inongo asmorik besterik egiteko, gatazkaren ardura osoa enpresa eta langileen artean kokatuz, “hirugarrengoen parte hartzeak onak ez direlakoan”.

Teniendo en cuenta que la huelga es indefinida y que, consecuentemente, el servicio está cerrado al público, nos pareció que hacer las reuniones de semana en semana era un ritmo muy lento para solucionar el conflicto. Además, teniendo en cuenta que el presidente del CICC SA/TABAKALERA es el alcalde, Sr. Goia, consideramos que es necesaria una implicación mayor por parte del Ayuntamiento, si es que se quiere llegar a una solución negociada y adecuada. Por eso, presentamos una interpelación al alcalde, a la que respondió el concejal de Cultura, el 11 del mes pasado. Así, hemos sabido que el alcalde ha celebrado una única reunión el 14 de enero y que no hay intención de realizar ninguna otra, puesto que atribuyen la responsabilidad total del conflicto a la empresa y a los trabajadores, “en la creencia de que la participación de terceros no es buena”.

Mozio hau eztabaidatzen den egunean bi hilabete izango dira langileak greban daudenetik. Tarte horretan bilera bakarra

El día en que se trate esta moción habrán transcurrido dos meses desde que los trabajadores comenzaron la huelga. El hecho

alkatearen partetik, alegia, erakundearen presidentearen partetik, zentroko zerbitzu inportanteenetako bat guztiz itxita dagoen bitartean ez dirudi oso jarrera proaktiboa, gatazkari irtenbide bat laguntzeko, ezta horrela betetzen denik 2018ko azaroan Udalbatzak hartu zuen erabakia hitzez hitz zioena “Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eta alkateari hertsiki eskatzen die Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa S.A. (Tabakalera) delakoaren UBIK liburutegiko bitartekarien kolektiboarekin elkartzeko ... bertan duten gatazkan bitartekaritza lana bideratzeko.”

de que el alcalde, es decir el presidente de la institución, haya realizado una única reunión en todo ese tiempo −en el que uno de los servicios más importantes del centro ha estado cerrado a cal y canto− no parece que pueda considerarse una postura muy proactiva, encaminada a ayudar a la búsqueda de una solución al conflicto, ni que de ese modo se cumpla el acuerdo del Pleno de noviembre de 2018ko que, literalmente, decía lo siguiente:”… a que se reúnan con el colectivo de mediadores y mediadoras de la biblioteca UBIK del Centro … (Tabakalera) … y poder, así, llevar a cabo una labor de mediación en el conflicto existente en dicho centro.”

Bi hilabetetan bilera gutxi eta bitartekaritza are eta gutxiago.

En dos meses, pocas reuniones y aún menos mediación.

Aurreko helburuak eta aginduak presente, gatazkari irtenbidea emateko dagoen moteltasunaren aurrean, ezin da ulertu Udalaren inplikazio zuzenaren falta, alkatea dena buru izan beharko litzatekeena.

Teniendo en cuenta los objetivos y promesas anteriores, y viendo la lentitud en la búsqueda de una solución al conflicto, no puede entenderse la falta de implicación directa del Ayuntamiento y de su alcalde, que debería estar a la cabeza, en calidad de presidente de Tabakalera.

Azaroan aurreratu genuen gaia UBIK liburutegia kudeatzen duen enpresaren eta bertako langileen artean konpondu beharrekoa dela entzuteko arriskua zegoela eta hala bete da; edo entzuteko Tabakalerako zuzendaritzari dagokion gaia dela zuzendaritzarengan konfiantza izateko beharra azpimarratu baitzaigu behin eta berriro. Berriro aurreratuko dugu konfiantza osoa edukita ere ez duela kentzen Udal Gobernuak, bereziki alkateak, egin dezakeen bitartekaritza lana gatazka honetan beste hainbatetan egin den bezala. Eta, noski, gatazka enpresa eta langileen arteko dela baina horrek ere ez du kentzen, zerbitzua itxita egoteari dagokionez Udalak duen ardura erakundearen parte inplikatua den neurrian.

En noviembre, avisamos de que existía el riesgo de tener que escuchar que el tema debe ser resuelto entre la empresa gestora de la biblioteca UBIK y el personal de la misma, y nuestra predicción se ha cumplido; o de escuchar que la cuestión que corresponde a la Dirección de Tabakalera es la necesidad de que se confíe en dicha dirección, tal como se ha señalado en repetidas ocasiones. En nuestra opinión, se puede tener absoluta confianza, pero eso no quita para que el Gobierno Municipal, sobre todo el alcalde, ejerza labores de mediación en este conflicto laboral, como lo ha hecho en otros. Y, claro que se trata de un conflicto entre la empresa y el personal que trabaja en ella, pero eso no exime al Ayuntamiento de su responsabilidad,

como parte implicada de la institución, respecto a que el centro se encuentre cerrado.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Por tanto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eta alkateari hertsiki eskatzen die Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa S.A. (Tabakalera) delakoaren UBIK liburutegiko bitartekarien lan gatazkan inplikatzeko aktiboki, irtenbide egokia aurkitu eta azkartze aldera.

El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal y al alcalde a que se impliquen activamente en el conflicto laboral de los mediadores y mediadoras de la biblioteca UBIK del Centro Internacional de Cultura Contemporánea (Tabakalera), para poder encontrar una solución adecuada lo antes posible.

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

San Sebastián, a 15 de febrero de 2019

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Amaia Martin Garin andreak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D.ª Amaia Martín Garín, D. José Luis Arrúe Pintó y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.3. Kontrol mozioa, Donostiako Udaleko emakumeen eta gizonen arteko Barne Berdintasun Plana dela eta.**

**II.2.3. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre el Plan de Igualdad.**

“Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal

“Naiara Sampedro Pérez, concejala del grupo

taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko azaroaren 12an Zerbitzu Orokorretarako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios Generales el 12 de noviembre de 2018.

JUSTIFIKAZIOA

2018ko ekainaren 15ean, Udaleko Erregistroaren bitartez, LAB sindikatuak Udaleko Pertsonaleko zuzendaritzari, udaleko emakumeen eta gizonen artean laneko desberdintasunari buruzko informazio eskaera zuzendu zion.

Idatzian ongi azaltzen den moduan, Langileen Estatutuaren 64.artikuluak, gizonak eta emakumeak lana zein balditzetan egiten duten inguruko informazio ezagutzeko eskubidea aitortzen du.

Zortzi hilabete geroago, aldiz, idatzian jasotako eskaeren inguruko informaziorik ez dute jaso. Urrian, abenduan eta urtarrilean Berdintasunerako Barne Batzordea bildu da baina datu segregaketaren inguruko informaziorik ez da eman. Gainera, Udaleko Barne Berdintasun Plana (2014-2017) gainditua dago eta berria garatu behar da. Horretarako, LABek egin duen eskaeran jaso beharreko informazioa ezinbestekoa da.

EHBildu Udal Taldetik, emakumeok bizi dugun diskriminazioa zenbatekoa den erakusten duen adierazleetako bat gizon eta emakumeen arteko soldata arrakala dela zalantzarik ez dugu eta baita partekatu ere, garaia dela egoera honen aurrean benetako konpromisoak hartzeko. Horretarako, behar beharrezkoa da egoera zein den ezagutzea, udal honetan gure

JUSTIFICACIÓN

El 15 de junio de 2018, el sindicato LAB presentó, a través del Registro Municipal, una solicitud de información, dirigida a la Dirección de Personal del Ayuntamiento, relativa a la desigualdad laboral entre mujeres y hombres en esta institución.

Tal y como se explica en el citado escrito, el artículo 64 del Estatuto del Empleado Público reconoce el derecho a tener información sobre las condiciones laborales de los hombres y de las mujeres.

Ocho meses después, los solicitantes todavía no han recibido la información que pidieron. En octubre y diciembre pasados y en enero de este año, se reunió la Comisión Interna de Igualdad pero no se proporcionó ninguna información sobre la segregación de datos. Además, el Plan Interno de Igualdad del Ayuntamiento (2014-2017) ya ha llegado a su vencimiento, por lo que es preciso elaborar uno nuevo. Para ello, es imprescindible disponer de la información que LAB solicita en su escrito.

El grupo municipal EH Bildu no tiene ninguna duda de que uno de los indicadores de la magnitud de la discriminación que padecemos las mujeres es la brecha salarial entre hombres y mujeres, y consideramos que ya es hora de adquirir compromisos efectivos para hacer frente a esta situación. Para ello, es absolutamente necesario conocer cuál es la

jarduera burutzeko gizonak eta emakumeak lana zein baldintzetan egiten dugun jakitea eta identifikatzen diren ezberdintasunei erantzun ahal izateko, hurrengo Barne Berdintasun Plana garatzea.

Hori guztia dela eta, aurkezten dut honako

KONTROL MOZIOA

1.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hilabeteko epean, 2018ko ekainaren 15ean eta Udaleko Erregistroaren bitartez, LAB sindikatuak Udaleko Pertsonaleko zuzendaritzari zuzendu zion udaleko emakumeen eta gizonen artean laneko desberdintasunari buruzko informazio eskaera erantzun dezan.

2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hilabeteko epean, Barne Berdintasun Batzordea deitu, 2014-2017ko Barne Berdintasun Planaren inguruko balorazioa, udal barneko diagnostikoa eta Barne Berdintasun Plan berria egiteko dauden aurreikuspenak parteka ditzala.

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

situación real, saber en qué condiciones trabajamos los hombres y las mujeres para cumplir con nuestro cometido en este ayuntamiento y elaborar un nuevo Plan Interno de Igualdad, con el que poder responder a las diferencias que se identifiquen.

En base a cuanto antecede, la concejala que suscribe formula la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, en el plazo de un mes, responda a la solicitud de información sobre la desigualdad laboral entre las mujeres y los hombres del Ayuntamiento de San Sebastián, solicitud presentada por el sindicato LAB a la Dirección de Personal de dicha institución, a través del Registro Municipal, el 15 de junio de 2018.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, en el plazo de un mes, convoque la Comisión Interna de Igualdad, para que comparta la valoración del Plan Interno de Igualdad 2014-2017, el diagnóstico interno del Ayuntamiento y las previsiones sobre la elaboración del próximo Plan Interno de Igualdad.

San Sebastián, a 15 de febrero de 2019

Naiara Sanpedro Pérez,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Naiara Sampedro Perez andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora D.ª Naiara Sampedro Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.4. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakala Donostian dela-eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko otsailaren 11an Pertsonentzako Zerbitzutako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Orain urtebete aurkeztu genuen mozioaren sarrera bera emango diogu honako honi: “2017ko azaroan Vera Jourova Europako Batzordeko Genero Berdintasuneko komisarioak nabarmendu behar izan zuen Europako Batasunean emakumeek, batez beste, gizonek baino %16 gutxiago kobratzen dutela, genero arteko soldata tartea murrizteko plana aurkeztu zuenean. Harrez gero, soldata arrakala hizpide izan da, gertuenetik urrutienera, mota eta maila guztietako eragileek horren inguruko datu eta iritziak plazaratu dituztela. Arrakalaren arrazoiak sakonak bezain sotilak dira eta Jourova komisarioak berak hiru faktore nabarmendu zituen: sektore arteko segregazioa, goi karguetara ailegatzeko ezintasuna eta zaintzaren zama; hau da, segregazio horizontalari eta segregazio bertikalari genero rolek eragindakoak gehitu behar zaizkio.”

**II.2.4. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre la brecha salarial entre mujeres y hombres en San Sebastián.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, someto la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción tare causa de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas el 11 de febrero de 2019.

JUSTIFICACIÓN

Vamos a presentar esta moción con la misma introducción que utilizamos en la que presentamos hace un año: “El mes de noviembre de 2017, la comisaria europea de Igualdad de Género, Vera Jourova, tuvo que destacar que en el seno de la Unión Europea las mujeres, de promedio, cobran un 16 % menos que los hombres, al presentar el plan para reducir la brecha salarial entre géneros. Desde entonces, la brecha salarial ha sido tema de debate desde los foros más cercanos a los más alejados, y agentes de todo tipo y nivel han dado a conocer datos y opiniones al respecto. Las razones de la brecha son tan profundas como sutiles, y la comisaria Jourova misma destacó tres factores: la segregación intersectorial, la imposibilidad de acceder a altos cargos y la carga de la custodia; es decir, a la segregación horizontal y vertical, hay que añadir los factores originados por los roles de género”.

Izan ere orain urtebete gaian sakondu nahi izan genuen, Donostian emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakalak duen tamaina eta dituen ezaugarri propioak ezagutzeko helburu. Orduan genuen egoera berean gaude urtebete osoa igaro ondoren, iazko greba feministaren eskaerek ez dute hemen argirik eman eta jarraitzen dugu daturik gabe.

Y es que hace un año quisimos profundizar en el tema, con el objetivo de conocer el tamaño y las características propias de la brecha salarial entre mujeres y hombres en San Sebastián. Después de permanecer un año completo en la misma situación que teníamos entonces, las reivindicaciones de la huelga feminista del año pasado no han hecho la luz aquí y seguimos sin datos.

Berriz ere Udal Gobernuari interpelazioa aurkeztu genion ezagutzen ditugun datuak oinarri, bereziki enpleguari dagozkionak eta errentari dagozkionak, esan bezala, soldataren arrakalaren daturik ez baitu eskuratu Udal Gobernuak urte osoan eta horretaz, ez dugu ezagutzen. Emaitza izan da, Udal Gobernuaren idatzizko erantzuna lekuko, gaia, Donostiako emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakala, alegia, udaleko taldeon arteko lehia moduan kokatzea: noiz zegoen langabezia tasa altuagoa, 2014ko krisian edo 2018ko egoera ekonomikoan hobetuan, bata eta bestea ea Bilduren garaian edo PNV/PSEren garaian gertatu ote den. Hori da Udal Gobernuaren erantzuna, ezin ulertuz proposatzen zaiona dela ezagutzea eragiteko.

De nuevo presentamos una interpelación al Gobierno municipal en base a los datos que conocemos, especialmente los relativos al empleo y a la renta, ya que, como hemos dicho, los desconoceos, dado el Gobierno municipal no ha proporcionado el dato de la brecha salarial durante todo el año. El resultado ha sido, como prueba la respuesta escrita del Gobierno municipal, hacer del tema, es decir, la brecha salarial entre mujeres y hombres de San Sebastián, una competición entre los grupos municipales: cuándo se encontraba la tasa de paro más alta, si en la crisis de 2014 o si en la mejor situación económica de 2018, si una y otra se han producido en la época del gobierno de Bildu o en la época del gobierno PVV-PSE. Ésa es la respuesta del Gobierno municipal, que no entiende que lo que se le propone es que actúe para conocer el dato.

Egun ez dugu ezagutzen, ez arrakalaren kopuru orokorra, are eta gutxiago kopuru horren arrazoiak. Nahiz eta Gobernuaren ordezkariak honako hau esan: “El Gobierno municipal tiene la intención de continuar desplegando todas las medidas a su alcance para propiciar el empleo femenino en la ciudad, así como para impulsar la mejora de sus condiciones que permita avanzar en la reducción de la brecha salarial global entre los géneros.” Ez badugu ezagutzen Donostiako egoera zehatza zein den zertan eta nola

No conocemos hoy, ni la cifra general de la brecha, ni, mucho menos, las razones de esa cifra. A pesar de que la representación del Gobierno dijo lo siguiente: “El Gobierno municipal tiene la intención de continuar desplegando todas las medidas a su alcance para propiciar el empleo femenino en la ciudad, así como para impulsar la mejora de sus condiciones que permita avanzar en la reducción de la brecha salarial global entre los géneros”.

eragingo da? Nola ziurtatuko du hartuko dituen neurriak neurri egokiak direna?.

2018an bai Hiriari dagokion plana, bai Udalaren barrukoari dagokiona bukatu zirenez, balorazioak egiteko unean egon gara, bai eta diagnostikoak berritzekoa ere. Soldata arrakala generoagatiko desberdinkerian oinarritzen den sistemaren parte da. Urte luzeetako arazo estruktural hau iraultzeko estamentu guztietatik eragiteko asmo sendoa beharrezkoa izango da, bai eta halaber bakoitzak detaile guztiak zaintzea ere. Donostiako Udalari dagokionez, kanpo zein barne mailan, hirian zein barne funtzionamenduan eragiteko aukera du, eta, egungo testuinguruari egokituta, Udal Gobernuak horren ardura lehenbailehen hartzea beharrezkoa da.

Si no sabemos cuál es la situación concreta de San Sebastián, ¿cómo se puede influir? ¿Cómo se garantiza que las medidas adoptadas sean las adecuadas? Dado que en 2018 tanto el Plan de Ciudad como el interno del Ayuntamiento finalizaron, hemos estado en el momento de realizar las valoraciones y, también, en el de actualizar los diagnósticos. La brecha salarial es una parte del sistema basado en la discriminación a causa del género. Será precisa una voluntad firme desde todos los estamentos para poder dar la vuelta a este problema estructural de largos años, y, al mismo tiempo, que cada cual cuide todos los detalles. Por lo que se refiere al Ayuntamiento de San Sebastián, tiene la posibilidad de incidir tanto a nivel externo como a interno, tanto en la ciudad como en el funcionamiento interno, y, adecuándose al contexto actual, es preciso que el Gobierno municipal asuma esa responsabilidad cuanto antes.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Donostian emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakala delakoa aztertzeko, bai datu orokorra ezagutzeari dagokionez, bai kopuru horren arrazoi nagusiak ezagutzeari dagokionez.

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a investigar la denominada brecha salarial entre las mujeres y los hombres en San Sebastián, tanto en lo que se refiere a conocer el dato general como en lo que atañe a conocer las razones principales de esa cifra.

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

En San Sebastián, a 15 de febrero de 2019

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.5. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostiako Udalak familia bakarreko gurasoentzako onartzen dituen prezio publikoak direla eta.**

“Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko otsailaren 11an Zerbitzu Orokorretarako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azken hamarkadetan asko aldatu da gure gizartean zegoen familia eredua eta gaur egun familia mota ezberdinak daude gure artean. Horietako bat guraso bakarreko familiak ditugu. Gaur egungo etxebizitzen %10 eta adin txikiko haurrak dauzkaten etxebizitzen %14,6 izatera iritsi dira. Gainera, guraso bakarreko familien ia %90 emakumeek gidatutako familiak dira.

Familia mota hau errealitatea bada ere, erakundeen aurrean erabat ikusezinak dira, ez

**II.2.5. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre los precios públicos que establece el Ayuntamiento de San Sebastián para familias monoparentales.**

“Naiara Sampedro Pérez, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios Generales celebrada el 11 de febrero de 2019.

JUSTIFICACIÓN

El modelo de familia existente en nuestra sociedad ha variado mucho en las últimas décadas y, en la actualidad, coexisten familias de diferentes tipos. Uno de ellos son las familias monoparentales. Han llegado a suponer el 10 % de las viviendas actuales y el 14,6% de las viviendas en las que hay menores de edad. Además, casi el %90 de las familias monoparentales están a cargo de mujeres.

Si bien este tipo de familia es una realidad que todas y todos conocemos, parece ser invisible

baitzaizkie onartzen beste familia mota batzuei onartzen zaizkien eskubideak. Gure hirian, kasu, guraso bakarreko familien aldeko trataera behin baino gehiagotan Udalbatzan eztabaidatu eta zenbait prezio publikotan aintzat hartzeko erabakiak hartu diren arren, udal barruan ez da gai hau behar bezala kudeatu, eta egun, irizpide ezberdinak eta hutsuneak dituzten prezio publikoak onartu dira.

para las instituciones, ya que éstas no les reconocen los derechos que sí reconocen a otro tipo de familias. En nuestra ciudad, por ejemplo, a pesar de haber sido debatido más de una vez en el Pleno el trato favorable a las familias monoparentales y de haberse adoptado acuerdos para tener en cuenta a estas familias en algunos precios públicos, la cuestión no ha sido gestionada del modo debido por el Ayuntamiento y, en la actualidad, se han aprobado precios públicos que responden a criterios diferentes y que presentan diversas lagunas.

Familia mota hauen izaera onartu behar da, eta begien bistakoa da hori ez dela Udalaren eskumena, baina udalek har ditzakete familia hauen aldeko erabakiak eta, edonola ere, kasu guztietan koherentzia mantendu behar da.

Hay que reconocer a este tipo de familias, y, aunque es evidente que no se trata de una competencia municipal, los ayuntamientos sí que pueden tomar decisiones que sean favorables a ellas; en cualquier caso, siempre actuando de manera coherente.

Bestalde, orain arte udala, guraso bakarreko familien definizioan "beste gurasorik ez izateagatik edo alarguna izateagatik" irizpidera mugatzen ari da. Abandonu, indarkeria matxista, adostutako ekarpen ekonomikoarekin ez betetzea edo eta askatasun gabezian egotea bezalako irizpideak jasotzen ez direla. Horrek hutsune ugari eta diskriminazio kasu ugari sortu dezakeela uste dugu.

Por otro lado, hasta el momento el Ayuntamiento, a la hora de definir lo que son familias monoparentales, limita el criterio al hecho de "no haber otro progenitor o tratarse de un viudo o viuda. Es decir, no se tienen en cuenta criterios como el abandono, la violencia machista, el incumplimiento de la aportación económica acordada y/o la privación de libertad. En nuestra opinión, esta situación puede generar muchas lagunas y muchos casos de discriminación.

Hori guztia dela eta, aurkezten dut honako

En base a cuanto antecede, la concejala abajo firmante formula la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari koordinatu dezala bai udal barruan bai bere erakunde autonomoetan guraso bakarreko familientzat onartzen diren prezio publikoen inguruko erabakiak, kasu guztietan irizpide berdinak aplikatu daitezen.

1.-El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a adoptar de forma coordinada, tanto en el propio Ayuntamiento como en sus organismos autónomos, los acuerdos sobre los precios públicos a aplicar en el caso de las familias monoparentales, para que se apliquen

los mismos criterios en todos los casos.

2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari udal barruan eta erakunde autonomoetan onartzen diren guraso bakarreko familientzako prezio publikoen irizpideetan “abandonua, indarkeria matxista, adostutako ekarpen ekonomikoa ez betetzea edo/eta askatasun gabezian egotea”-ri erantzuten dioten egoerak jasotzea.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, en los criterios sobre los precios públicos para familias monoparentales que se aprueban tanto en el propio Ayuntamiento como en sus organismos autónomos, se tengan en cuenta situaciones como “el abandono, la violencia machista, el incumplimiento de la aportación económica acordada y/o la privación de libertad”.

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

San Sebastián, 15 de febrero de 2019

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Naiara Sanpedro Pérez,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Naiara Sampedro Perez andreak, Amaia Martin Garin andreak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Naiara Sampedro Pérez, D.ª Amaia Martín Garín, D. José Luis Arrúe Pintó, D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**5. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**5. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.6. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Etxegabeentzako Euskal Estrategia Donostian garatzea dela eta.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko otsailaren 11an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Enpresei emandako laguntza ekonomikoetan oinarritu dira gaur egun arte abian jarri diren itzulera planak, eta ez dute kontuan izan migratzaileen parte hartzea plan horiek prestatzean. Era berean, ia ez dago donostiar atzerriratuen eta haien eskarien inguruko azterketarik.

Los planes de retorno acometidos hasta la fecha han estado basados en ayudas económicas a empresas y no han tenido en cuenta la participación de las personas migrantes en la elaboración previa de estos planes. De igual modo, hay una ausencia significativa de estudios acerca de la situación de la migración donostiarra y sus demandas.

Itzulera planak egitea beharrezkoa delakoan, beharrezkoa da, baita ere, atzerriratu guztientzat mesedegarriak izango diren itzulera baldintzak sortzea, profil jakin bat duten pertsonetara bakarrik mugatu gabe. Hala ere, prestakuntza maila altua eta ekiteko borondatea dituzten gazteentzat izan dira orain arte egindako planak. Baina badira beste profil asko dituzten pertsonak ere, itzuli nahiko luketenak.

Entendiendo que es necesario elaborar planes de retorno, igualmente es preciso poder asegurar unas condiciones de retorno favorables a todas ellas, sin limitar el acceso a determinado perfil de persona. Sin embargo, los planes realizados hasta la fecha se han dirigido a personas jóvenes, con un nivel de formación alto y con voluntad de emprender. Sin embargo, hay muchos más perfiles de personas que desearían retornar y que no tienen el perfil establecido.

Garrantzitsua da itzulerari buruz migratutako pertsonekin batera gogoeta egitea; izan ere, aspaldidanik, ekonomiaren suspertzearen inguruko diskurtsoari itzuleraren ideia modu arriskutsuan lotu zaio. Hala ere, baldintza ekonomikoek eta estatistikek adierazten dutenez, itzulera prozesu orokor bat gertatzen ari da.

Es importante que la reflexión sobre el retorno se lleve a cabo con las personas migradas ya que, desde hace un tiempo, al discurso de la recuperación económica se ha ido asociando peligrosamente la idea del retorno. Sin embargo, ni las condiciones económicas ni las estadísticas indican que se esté produciendo un proceso de retorno generalizado.

Hori dela eta, migratutako pertsonen itzulera erraztuko duten politikak egiteko asmoz, honako hau aurkezten dugu

Por ese motivo, y al objeto de elaborar políticas que favorezcan el retorno de las personas migradas, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari gaur egungo egoeraren diagnostikoa egiteko eta emigrazio azterketa bat egiteko, pertsona guztientzat itzulera politika duinak garatu ahal izateko, itzultzeko politika selektiboak saihestuta.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a elaborar un diagnóstico de la situación actual y un análisis emigratorio al objeto de poder desarrollar políticas públicas de retorno digno para todas las personas evitando políticas selectivas de retorno.

2. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari pertsona migratu eta itzulitakoentzako tokiko bulego bat martxan jartzeko, itzulera prozesuari buruzko aholkularitza erraz eta eskuragarri bat emateko.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a poner en marcha una oficina local de personas migradas y retornadas para realizar asesoramiento fácil y accesible sobre el proceso de retorno.

3. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari pertsona migratu eta itzulitakoen kontseilu bat sortzeko, udal politiketan etengabe eta zuzenean parte hartzeko bideak ezarri ahal izateko.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a crear un consejo de personas emigrantes y retornadas que permita establecer canales de participación continuada en las políticas municipales de manera directa.

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

Donostia a 15 de Febrero de 2019

Sinatua: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea”.

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Olaia Duarte Lopez andreak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Amaia Martín Garín, D.ª Olaia Duarte López y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7)**

**PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.**

**PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.**

---------------

**II.2.12. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, Larresko Ibarreko erabilera dela eta.**

“Loïc Alejandro Irabazi Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikuluarekin bat, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Larresko ibarreko obrak direla eta. Mozio hau GUNE PUBLIKOKO BATZORDEAn (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK), urtarrileko bileran, aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Larresko ibarrean egindako obrei buruzko eztabaidan, jakin dugu aire-kalitateari buruz egindako 15 kanpaina baino gehiagotik 3tan, amiantoaren presentziarako positiboa eman zuen 9 lagin-puntuetako batek, baina legez ezarritako mugaren azpian. Ondorioz, obrak hilabetez gelditu ziren. Harrez geroztik, egunero hartzen dira laginak.

Gure taldeak Batzordean esan zuen Espainiako araudia ez dela behar bezain fidagarria, eta horregatik, orain arte, zuhurtziaz, Holandako legerian zehaztutako mugak hartu zirela erreferentzia gisa, gai horretan aurreratuago baitago hango legeria. Horri Gobernuak erantzun zion aplikatu beharreko legeria Espainiakoa dela eta hori erabiltzen dela.

Espainiako legeriak 0,1 zuntz/cm3-ko zifra ezartzen du esposizio-muga gisa, amiantoa

**II.2.12. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA relativa a las obras en la vaguada de Larres.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de ESPACIO PÚBLICO, OBRAS, Y SERVICIOS URBANOS del mes de enero, relativa a las obras en la vaguada de Larres.

JUSTIFICACIÓN

En el transcurso del debate sobre las obras en la vaguada de Larres pudimos saber que en 3 de las más de 15 campañas de calidad de aire, hubo uno de los 9 puntos de muestra que dio positivo a la presencia de amianto, pero debajo del umbral establecido legalmente. Consecuentemente se pararon las obras durante un mes. Y desde entonces se están tomando muestras cada día.

Desde nuestro grupo comentamos en comisión que la normativa española no es suficientemente fiable y que por esto, hasta ahora y por precaución, se había tomado como referencia los límites definidos en la legislación holandesa, más avanzada en la cuestión. A esto el Gobierno contestó que la legislación aplicable es la española y que es la que se utiliza.

La legislación española establece la cifra de 0,1 fibras/cm3 como límite de exposición en el

manipulatzea eskatzen duten obretan langileak babesteko diseinatutako araudi baten esparruaren barruan, hau da, dagoeneko babesa duten langileak babesteari dagokionez. Zuhurtzia-neurri gisa, Eusko Jaurlaritzak obrak hilabetez gelditzea erabaki zuen. Positiboa iruditzen zaigu, jakina, langileak babesteko horrelako neurriak hartzea, baina inguruan ez dago obretako langilerik bakarrik. Ikastetxe bat ere badago.

Batzordean, Gobernuak lotu zuen amiantoa airean egotea kiroldegi zaharra botatzearekin eta egindako lur mugimenduekin (nahiz eta onartu zuen ez dagoela harreman hori formalki ezartzen duen txostenik). Hala eta guztiz ere, agindutako azterlanen arabera, Altzako kiroldegiaren lursailean ez zegoen amiantorik, Alfonso Gurpegui Ingurumeneko zinegotziak eta Enrique Ramos Hirigintzakoak jakinarazi zutenez, 2017ko uztailaren 26an egindako prentsaurreko batean.

Beraz, bietako bat:

• airean aurkitutako amiantoa kiroldegi zaharretik zetorren eta horrek esan nahi du lursailean amiantorik ez zegoela ondorioztatu duten azterketak ez direla fidagarriak

• detektatutako amianto-zuntzak estaltzekoa zen kutsatutako lurzorutik bertatik zetozen (sastraka kentzeak, lur-mugimenduak, betelanak, lur-erauzketak, etab.)

Bi kasuotan, berria txarra da.

Guraso Elkarteak eta herritarren plataformak berandu eta kasualitatez jakin zuten laginek positibo eman zutela, Udalarekin izandako bilera batean, hain zuzen, baina bilera ez zen egin laginen berri emateko. Informazio hori

marco de una normativa diseñada para proteger a los y las trabajadoras en obras que implican manipulación de amianto, es decir personal que ya cuenta con protección. Como medida de precaución el Gobierno Vasco decidió parar las obras durante un mes. Nos parece evidentemente positivo adoptar medidas de este tipo para proteger a los trabajadores, pero no solo hay personal de las obras en el entorno. Hay también un centro educativo.

En comisión el Gobierno relacionó la presencia de amianto en el aire con el derribo y los movimientos de tierras del antiguo polideportivo (aunque admitió que no existe ningún informe que establezca formalmente esa relación). Sin embargo, los estudios encargados descartaron la presencia de amianto en la parcela del polideportivo de Altza, según anunciaron tanto los concejales de Medio Ambiente, Alfonso Gurpegui, como el de Urbanismo, Enrique Ramos, en una rueda de prensa el 26 de julio de 2017.

Por lo tanto, una de dos:

• el amianto detectado en el aire venía del antiguo polideportivo y esto significa que los estudios que han concluido que no había amianto en la parcela no son fiables;

• las fibras de amianto detectadas procedían del propio terreno contaminado que se iba a cubrir (trabajos de desbroce, los movimientos de tierra, terraplenados, desmontes, etc.).

En ambos casos es una mala noticia.

El AMPA y la plataforma ciudadana se enteraron de las muestras que habían dado positivo en una reunión con el Ayuntamiento a toro pasado y de casualidad, ya que la reunión no era para informar sobre las muestras. Esa

bide batez eman zen. Ikastetxeko zuzendaritzak, bere aldetik, Guraso Elkarteak eta plataformak jakinarazi ziotenean jakin zuen gaiaren berri.

información se dio de pasada. La dirección del centro educativo supo del tema cuando, a su vez, el AMPA y la plataforma le comunicó la información.

Gure ustez, legez ezarritako muga gainditu ez bada ere, familiek eskubidea dute berehala jakiteko laginen emaitzei buruzko informazioa, are gehiago, horietako batzuek agerian uzten badute amiantoa dagoela airean. Laneko Segurtasun eta Higienerako Institutu Nazionalaren (INSHT) arabera, amiantoaren lan-esposizioaren muga-balioa ez da osasuna babestea bermatzen duen baliotzat hartu behar, ezin izan baita zehaztu zer mailatatik behera amiantoaren eraginpean egoteak ez dakarren inolako arriskurik minbizia izateko.

Consideramos que, aunque no se haya sobrepasado el limite legalmente establecido, las familias tienen derecho a tener información inmediata sobre los resultados de las muestras cuando algunas manifiestan la presencia de amianto en el aire. Debemos recordar que según el Instituto Nacional de Seguridad e Higiene en el Trabajo (INSHT) “El valor límite de exposición laboral para el amianto no debe considerarse como un valor que garantice la protección de la salud, ya que no se ha podido determinar el nivel por debajo del cual la exposición al amianto no entraña ningún riesgo de cáncer”.

Kontua ez da alarma sortzea, familiei informazioa ematea baizik, egoki iruditzen zaiena erabaki dezaten. Osalanek erabaki du obrak gelditzea langileak babesteko zuhurtziazko neurri gisa, baina familiek ez dute ezer erabakitzeko aukerarik izan, ez baitzekiten zer gertatzen ari zen.

No se trata de generar alarma, sino de aportar información a las familias para que éstas puedan decidir lo que les parezca oportuno. Osalan ha decidido parar la obra como medida de precaución para proteger a los trabajadores, pero las familias no han tenido la oportunidad de decidir nada, porque no sabían.

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Harri Berri-Oleta ikastetxea, hango Guraso Elkartea eta Altza Osasuntsuagoren Aldeko Plataforma berehala jakinaren gainean jartzeko, Larresko ibarreko eta Altzako kiroldegi berria egiteko obrak direla eta, laginek airean amiantoa dagoela adierazten dutenean.

Donostia, 2019ko otsailaren 15a

Sin.: Loïc Alejandro,

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a informar inmediatamente al centro educativo Harri Berri-Oleta, al AMPA y a la plataforma ciudadana Altza Osasuntsuagoaren Aldeko Plataforma, cuando la muestras de aire indiquen presencia de amianto en el aire en el marco de las obras de la vaguada de Larres y del nuevo polideportivo de Altza.

Donostia a 15 de Febrero de 2019

Fdo.: Loïc Alejandro

Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia”.

Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.13. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, Amaran eta Intxaurrondon edukiontziak jartzeko planak direla eta.**

“Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAk hil honetan izandako bileran Amaran eta Intxaurrondon edukiontziak jartzeko planen gainean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Intxaurrondon eta Amaran hondakinak biltzeko edukiontziak jartzeko modu berriak, horren kontrola eta jarraipena egitea ere badakar. Hala, aldaketa horien balantzea egin dute urtarrilean, bilketa-puntuen kopurua optimizatzeko, irisgarritasuna hobetzeko eta hondakinak bereizteko tasak handitzeko hartara.

**II.2.13. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA relativa a los planes de contenerización de Amara e Intxaurrondo.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de ESPACIO PUBLICO, OBRAS Y SERVICIOS del presente mes, relativa a los planes de contenerización de Amara e Intxaurrondo.

JUSTIFICACIÓN

La experiencia desarrollada en los barrios de Intxaurrondo y Amara en relación a la nueva contenerización de residuos lleva asociado un control y seguimiento de la citada implantación. De este modo, en el mes de enero , se ha hecho un balance de los cambios realizados con el objetivo de optimizar el número de puntos de recogida,

mejorar la accesibilidad y con ello aumentar las tasas de separación de residuos en barrios.

Joan den urteko irailean osoko bilkurara eraman genuen gai hau guk; izan ere, iruditzen zitzaigun —eta hala iruditzen zaigu ordainik ere— planaren helburua bilketa-kostuak murriztea zela, eta gaikako bilketa hobetu beharra bigarren mailan uzten zela. Hilabete batzuk pasa dira harrezkero, baina oraindik ere ikusten dugu etengabe jarraitu behar dela hobetzen, kanpaina batzuk egin eta edukiontziak erantzukizunez erabiltzea bultzatuz, adineko pertsonei edukiontzietara ailegatzeko modua samurtuz —batez ere orografia konplikatuko tokietan— eta hondakinak gaika ondo biltzeko doikuntza eta hobekuntza batzuk eginez.

El pasado mes de septiembre trajimos a pleno este tema ya que la sensación que teníamos y que seguimos teniendo es que el objetivo del plan era reducir los costes de recogida, dejando en un segundo plano la necesidad de mejorar la recogida selectiva. Varios meses después, observamos que hay que continuar mejorando de forma continua, impulsando mediante campañas un uso responsable de los contenedores, facilitando la accesibilidad de la población más mayor, sobre todo, en zonas de orografías complicadas y realizando ajustes y mejoras para una recogida selectiva adecuada.

Gune Publikoen Batzordeak hil honetan izan duen bileran, interpelazio bat egin genion zinegotzi ordezkariari; izan ere, lehen esandako aldaketak egin eta gero, hondakinak gaika biltzeko irlatxo edo gune batzuetan errefusa biltzeko edukiontzi gehiago baitago beste ezer biltzeko baino.

En la comisión de espacio público del presente mes, interpelamos al concejal delegado ya que hay isletas de recogida selectiva de residuos que tras los cambios en la contenerización ha provocado que haya más contenedores de resto que ninguna otra de las fracciones presentes.

Guk uste dugu, birziklatze tasa hobetuko bada, errefusaren ehunekoa jaitsi behar dela, eta, hori dela eta, pentsatzen dugu egin behar diren aldaketak gaikako bilketa hobetzeko aldaketak izan behar direla.

Entendiendo necesario reducir la fracción resto al objeto de mejorar las tasas de reciclaje, consideramos que se deben producir los cambios oportunos que permitan alcanzar mejorar la recogida selectiva.

Era berean, ikusten dugu sartutako aldaketa askok, batez ere errefusa biltzeko edukiontziak lehen ziren toki batzuetatik kentzeak (edukiontzi haiek bakarrik ziren tokietatik), toki horietan hondakinak lurrean bertan uztea ekarri duela, eta ondorio kaltegarri batzuk dakartzala horrek.

De igual modo, observamos cómo muchos de los cambios introducidos y fundamentalmente la eliminación de contenedores de resto que estaban fuera de isletas con el resto de fracciones está provocando que aparezcan residuos en donde se situaban anteriormente los citados contenedores de resto, con las consecuencias que provoca que esos residuos se depositen en la vía pública directamente.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio hondakinak gaika biltzeko tasak handitzeko moduko bilketa guneak garatzeko, eta, beraz, gune edo irlatxo batean ez izateko inoiz beste hondakin-frakzio bat biltzeko baino errefusa biltzeko edukiontzi gehiago.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio hondakinen bilketa optimizatzeko, edukiontzien egungo betetze-emaitzen arabera.

3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio informazio kanpaina bat egiteko aldaketak egindako kale eta tokietan ere, hondakinak hobeto bildu eta, hartara, gaikako bilketa handitzeko.

Donostia a 15 de Febrero de 2019

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

Por todo ello, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a desarrollar áreas de aportación de residuos que posibiliten aumentar las tasas de recogida selectiva de residuos de tal modo que en ningún caso la presencia de contenedores de resto en cada isleta sea superior a otra fracción de residuos.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a optimizar la recogida de residuos en función de los resultados de llenado actuales.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a desarrollar una campaña de información también en las calles y zonas afectadas por los cambios introducidos, al objeto de mejorar la recepción de residuos correctamente y con ello mejorar su recogida selectiva.

Donostia a 15 de Febrero de 2019

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Amaia Martin Garin andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora D.ª Amaia Martín Garín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.14. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, Intxaurrondoko jabari publikoko lursail bat erlijio-erabilerarako emakidan emateko prozedura dela eta.**

“Amaia Martin Garin Irabazi Donostia taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hil honetako OGASUN BATZORDEAN aztertutako interpelazioaren ondorioz, INTXAURRONDOKO JABARI PUBLIKOKO LURSAIL BAT ERLIJIO-ERABILERARAKO EMAKIDAN EMATEKO PROZEDURA DELA ETA.

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilaren 22an, Gobernu Batzarrak onartu zituen g.00 “ED.1.1” AU “IN.07.Baratzategi” finka modu pribatiboan erabiltzeko emakida esleitzeko Administrazio Klausula Partikularren Orriak. Finka hori jabari publikokoa da eta emakida, prozedura irekiaren bidez esleitua, erlijio-erabilerako ekipamendu gisa erabiltzeko da.

Gobernu Batzarraren erabakiaren arabera, proiektuaren interes publikoa justifikatuta dago, onartzekoa den Kultu Zentroen Legearen helburuak lortzeko balio baitu, batez ere, oinarrizko eskubideak (kasu honetan, erlijio-askatasuna) baliatu ahal direla ziurtatzeko neurri positiboak hartzeari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, gure ustez, gauza bat da botere publikoek erlijio-izaerako ekintzak askatasunez egin ahal izatea bermatzea, eta oso bestelako bat, hezkuntza-erabilerako

**II.2.14. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el procedimiento de concesión de dominio público para uso religioso en Intxaurrondo.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de Hacienda del presente mes, en relación con el PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DOMINIO PUBLICO PARA USO RELIGIOSO EN INTXAURRONDO .

JUSTIFICACIÓN

El 22 de enero, la Junta de Gobierno Local (JGL), aprobó el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares para la adjudicación, por procedimiento abierto, de la concesión de dominio público para la utilización privativa de la finca g.00 “ED.1.1” AU “IN.07 Baratzategi”, con destino a equipamiento de uso religioso.

El acuerdo de la Junta de Gobierno Local señala como justificado el interés público del proyecto en base a la consecución de los objetivos de la futura Ley de Centros de Culto, concretamente en lo referido a la adopción de medidas positivas para asegurar el ejercicio de los derechos fundamentales como la libertad religiosa.

No obstante, entendemos que una cosa es que los poderes públicos garanticen el libre ejercicio de actividades de naturaleza religiosa y otra bien diferente que se comprometan

titularitate publikoko lursailak beste erabilera bati atxikitzea, kasu honetan, erlijio-izaerako erabilera bati, auzoarentzat edo hiri osoarentzat interes handiagoa izan dezaketen beste erabilera batzuk kontuan hartu gabe. Horretarako, gainera, Hiria Antolatzeko Plan Orokorra aldatu beharko litzateke, beharrezkoa izanez gero.

Bestalde, gogoratu behar da Intxaurrondo auzoan jabari publikoko beste emakida bat izapidetzen ari dela ikastetxe pribatu baterako, eta, gainera, hizpide dugun emakida justifikatzeko emandako argudioetako bat izan dela auzoak ekipamendu-premia guztiak beteta dituela: kultura, hezkuntza eta osasun arlokoak, bai eta beste arlo guztietakoak ere. Beraz, prozedura hau ez da ulertzen, justifikazio nahikorik ematen ez bada, behintzat.

Azkenik, azpimarratu behar da alde horretan, eta hiri osoan, badirela merkataritza-lokal asko erabiltzen ez direnak, eta, beraz, erabilera horretarako baliatu daitezkeenak, titularitate publikoko lursailetako etorkizuneko garapenak arriskuan jarri gabe, kasu honetan bezala.

Horiek horrela direla, honako kontrol mozio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari jabari publikoko g.00 “ED.1.1” AU “IN.07 Baratzategi” lursaila erlijio-erabilera pribatiborako emakidan emateko prozedura geldiarazteko, arloko zuzkiduren epe ertain/luzeko azterketa egiten ez den bitartean, eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatu arte.

parcelas de titularidad pública de uso educativo a un nuevo uso, de carácter religioso, sin haber valorado otros usos que pudieran ser de mayor interés que este para el barrio o el conjunto de la ciudad, cuestión que habría que clarificar mediante una modificación en su caso del PGOU.

Cabe recordar además que está en tramitación otra concesión de dominio público en el barrio de Intxaurrondo para un centro educativo privado, y que entre los argumentos esgrimidos para la citada concesión, uno ha sido que el barrio tiene cubiertas todas las necesidades de equipamiento: cultural, educativo, sanitario u otros. Por lo tanto, no se entiende este nuevo procedimiento sin una justificación suficiente que lo avale.

Por ultimo, cabe destacar que existen en la zona, y en toda la ciudad, numerosos locales comerciales en desuso que bien podrían servir al uso pretendido sin comprometer futuros desarrollos en parcelas de titularidad pública, como es el caso que nos ocupa.

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a paralizar el procedimiento para la concesión de dominio público para la utilización privativa de la parcela g.00 “ED.1.1” AU “IN.07 Baratzategi” para uso religioso, mientras no se lleve a cabo un análisis de las necesidades a medio/largo plazo de dotaciones en la zona, y hasta que no se modifique el Plan General de Ordenación Urbana.

Donostia, 2019ko otsailaren 15a

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

Donostia a 15 de febrero de 2019

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D.ª Amaia Martín Garín, D. Ricardo Burutaran Ferré y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**ATSEDENALDIA**

**13:55EAN, ATSEDENALDIA EGITEN DA ETA BERRIRO ERE EKITEN ZAIO SAIOARI, 15:10AK DIRENEAN.**

**RECESO**

**SIENDO LAS 13:55 H., SE REALIZA UN RECESO Y SE REANUDA LA SESIÓN CUANDO SON LAS 15:10 H.**

---------------

**II.2.15. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Haizearen Orraziaren irisgarritasuna dela eta.**

"Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur

**II.2.15. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa a las obras de accesibilidad al Peine del Viento.**

"Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo

Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkezten diot Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak 2019ko otsailaren 11n izan zuen bileran Haizearen Orraziaren irisgarritasunaz egindako interpelazioaren ondorioz.

Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 11 de Febrero de 2019, relativa a las obras de accesibilidad al Peine del Viento.

JUSTIFIKAZIOA

Agintaldi honetan denean, urte batzuk Haizearen Orraziaren monumentu-multzoaren irisgarritasun unibertsala bermatzeko eskatzen ari direnen esanak jaso eta haiek zabaltzen aritu da Talde Popularra. Asko eztabaidatu dugu horri buruz etxe honetan, eta era askotako erantzunak eta jarrerak eman eta hartu ditu Udal Gobernuak.

Hasiera-hasieratik eskatu diogu guk Gobernu Taldeari era horretako konponbide bat jartzeko horrenbeste jende ibiltzen den toki horretan. Agintaldiaren hasieran, ezezkoa ematen zuen Gobernu Taldeak, hura ez zela toki publikoa esanez, harri eta zur utzita herritarrak erantzun horrekin, ezin baitzuen sinetsi entzuten zutena.

Herritarren mobilizazioei eta oposizioak egindako presio politikoari esker, atzera egitea erabaki zuen Gobernu Taldeak, hasierako irizpidea aldatu eta toki hura publikoa zela onartzea, eta legeak gune publikoak zaintzeko dakarren betebeharra aintzakotzat hartu eta nornahi iristeko modua jartzea.

Horretarako, pasealekuko multzo artistikoaren hasierako itxura ez aldatzeko eta harekin ondo ezkontzeko moduko konponbide bat lortzeko modu batzuk begiratu zituzten. Azkenean, konponbidea galtzada-harriak leundu eta junturak betetzea izatea erabaki zuten,

JUSTIFICACIÓN

A lo largo del presente mandato, desde el Grupo Popular hemos venido haciéndonos eco de las peticiones que llevan años solicitando que se garantice la accesibilidad universal al conjunto monumental del Peine del Viento. Mucho se ha debatido al respecto en esta casa, y variadas han sido las respuestas y posiciones ofrecidas por el Gobierno Municipal.

Desde un origen hemos pedido que el Equipo de Gobierno pusiera en marcha una solución de este tipo en un espacio público de gran afluencia. Al comienzo del mandato, el Equipo de Gobierno negaba la mayor, rechazando el carácter público de ese espacio, para sorpresa de la ciudadanía, que no salía de su estupor.

Gracias a las movilizaciones ciudadanas, y a la presión política ejercida desde la oposición, el Equipo de Gobierno decidió recular, y cambiar su criterio inicial aceptando, de una vez, el carácter público de la zona afectada, y asumiendo la obligación legal de cuidar un espacio público y procurar su accesibilidad universal.

Al respecto, se estudiaron diversas formas para poder lograr una solución definitiva que encajara y no desvirtuara el conjunto artístico del Paseo en su concepción original. Al final se decidió, como solución, limar adoquines, y unir las juntas para conseguir un pasillo que

korridore bat izateko, ezintasun fisikoren bat edo mugikortasun faltaren bat duten pertsonak ere ailegatzeko modua izateko.

Hirigintzako zinegotzi ordezkariak berak ere iragarri zuen aukera bat izan zitekeela udal aurrekontuetan jarduera hori finantzatzeko kontu-sail bat sartu edo, bestela, aurrekontua aldatzeko. Ez bata ez bestea, ordea, ez da izan orain arte.

Gai honetan beste elementu bat gehiago sartzeko, eskapismo eta marketin politikoaren ariketa garbi bat egin eta, joan den urtearen bukaera aldera, oraingo Gobernu Taldeak egindako proposamen baten berri eman zuten komunikabideek: Haizearen Orraziaren monumentu multzoa Gizateriaren Ondare adierazteko eskatzea Unescori. Prozesu hori espediente bat eginez hasi behar da, Chillidaren eskulturak eta haien ingurua monumentu multzo katalogatu ditzan Eusko Jaurlaritzak aurrena, eta, ondoren, prozesuarekin jarraitu.

Dakigunez, Haizearen Orrazi aldera den hegala, Igeldo mendiarena, egonkortasuna bermatzeko lan batzuk egiteko premian dago, behin eta berriz izan baitira luiziak han. Hala ere, ekimen asko aurkeztu arren, ez da diru-biderik jarri udal aurrekontuetan ez mendi hegala egonkortzeko (hiru urte daramatza behin-behingo sare bat jarrita), ez eta monumentu multzoan irisgarritasun unibertsala bermatzeko ere (Eusko Jaurlaritzak konponbidea ontzat jota duen arrean, alkateak berak esan duenez). Talde Popularrak azken aurrekontuei egindako zuzenketa baten bidez bakarrik lortu da 350.000 euroren kontu-sail bat sartzea hegalaren egonkortasuna bermatzeko.

Batzordeak orain hurrena izan zuen bileran,

garantice la accesibilidad a lugar a aquellas personas con algún tipo de discapacidad física o falta de movilidad.

Incluso, el Concejal Delegado de Urbanismo anunció la posibilidad de incorporar una partida en los presupuestos municipales para financiar la actuación o, en su caso, procurar una modificación presupuestaria. Ni una ni otra situación se han dado hasta hoy.

Para introducir un nuevo elemento en la cuestión, y en un claro ejercicio de escapismo y de marketing político, a finales del pasado año los medios de comunicación se hacen eco de una propuesta del actual Equipo de Gobierno para proponer a la Unesco que declare Patrimonio de la Humanidad el conjunto monumental del Peine del Viento. El proceso debe iniciarse elaborando un expediente para que, en primer lugar, el Gobierno Vasco catalogue el entorno y las esculturas de Chillida como Conjunto Monumental para, a continuación, seguir con el resto del proceso.

Como sabemos, la ladera del monte Igueldo que da al Peine del Viento necesita de una actuación para garantizar su estabilidad, pues viene sufriendo desprendimientos de manera recurrente. Sin embargo, y pese a nuestras reiteradas iniciativas, ni se ha dispuesto financiación en los presupuestos municipales financiación para estabilizar la ladera (que lleva con una malla provisional tres años), ni para garantizar la accesibilidad universal al conjunto (solución ya validada por el Gobierno Vasco, en palabras del propio Alcalde). Sólo a través de una enmienda del Grupo Popular a los últimos presupuestos, se ha conseguido incluir una partida de 350.000 euros para garantizar la estabilidad de la ladera.

En la última Comisión volvimos a inquirir al

berriz ekin genion Gobernu Taldeari gai honen inguruan, zer pauso ematen ari ziren ikusteko, batez ere irisgarritasunaren aldetik. Eta harrituta geratu ginen erantzunarekin. Izan ere, esku-hartze osoarekin lotu baitzuen irisgarritasunarena alkateak, hau da, hegala egonkortzearena ere sartzea esku-hartze horretan (PP taldeagatik izan ez balitz finantzabiderik ez zen izango egonkortzeko).

Ezustekoa, ez delako hori alkateak berak aurreko bileretan izan duen jarrera —iazko azaroan, konparazio baterako—, ez eta Gobernu Taldeak berak izan duena ere —iazko irailean gure talde politikoak aurkeztutako mozio baten aurrean, adibidez—. Jarrera hori oso ondo ezkontzen da, ordea, EAJk eta PSEk bukatzeko asko falta ez duen legealdi honetan denean gai hau kudeatzekoan izan duten irizpide-desberdintasunarekin.

Lehen esan dugun bezala, Gobernu Taldeak inoiz ez du lotu jarduera bat bestearekin, eta ederki asko egin daitezke biak bereiz ere. Gainera, Eusko Jaurlaritzak dagoeneko ontzat hartu du pasealekuaren irisgarritasun proiektua. Udal Gobernuak badu behar adina aurrekontu jarduerari ekiteko, baditu behar diren laguntzak, irtenbide teknikoak, profesional mordo bat lana egiteko prest eta behar diren baliabide guztiak eskura. Proaktibitatea eta irtenbideei heltzeko bultzada politikoa da falta dena. Hori dela eta, hauxe da Talde Popularrak dakarren MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die ahalik eta azkarren ekiteko Eduardo Chillidaren pasealekutik Haizearen Orriaren multzo artistikorainoko guztian irisgarritasun unibertsala bermatzeko obrei.

Equipo de Gobierno sobre la cuestión, para ver qué pasos se estaban dando, centrándonos en la accesibilidad. Para sorpresa de esta parte, el Alcalde vinculó la actuación de accesibilidad a una operación integral que contemplara, también la estabilización de la ladera (que si no es por el PP no tiene financiación).

Sorpresa porque no es esta la posición mantenida por el propio Alcalde en sesiones anteriores, como la de noviembre del pasado año; ni la sostenida por el propio Equipo de Gobierno a instancias de una Moción presentada por nuestro Grupo político en septiembre del año pasado. Pero que encaja perfectamente con la disparidad de criterios que ha regido la actuación del PNV y del PSE en este tema a lo largo de todo el mandato, que toca a su fin.

Como ya hemos dicho, el Equipo de Gobierno nunca ha vinculado una actuación a la otra, ambas se pueden realizar perfectamente de manera independiente. E, incluso, el Gobierno Vasco ha validado ya el proyecto de accesibilidad del Paseo. El Gobierno Municipal tiene presupuesto suficiente para abordar la actuación, tiene los apoyos necesarios, las soluciones técnicas, decenas de profesionales dispuestos, y todos los medios a su alcance. Falta proactividad y empuje político para abordar las soluciones, y es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia- San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, a la mayor brevedad, inicie las obras para garantizar la accesibilidad universal en el Paseo de Eduardo Chillida hasta el conjunto artístico del Peine del Viento, como se ha comprometido.

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea”.

En Donostia/ San Sebastián, a 15 de Febrero de 2019

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular”.

Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.16. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Donostian kontzertuak egiteko moduko tokiak izatea dela eta.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordea (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2019ko otsailaren 11n izan zuen bileran Donostian kontzertuak egiteko moduko tokiak izateaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Azken urteotan, behin baino gehiagotan eztabaidatu da Donostiak tarteko tamaina bateko kontzertuak egiteko tokiak izan behar dituela berriz ere, garai batean Belodromoa izan zen bezala, nazioarteko panoramako artista handi askoren kontzertuak izaten

**II.2.16. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa a los espacios para conciertos en la ciudad.**

“Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 11 de Febrero de 2019, relativa a los espacios para conciertos en la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

En los últimos años, se ha debatido sobre la necesidad de que San Sebastián pudiera volver a contar con espacios para conciertos de aforo medio, como en el pasado, el Velódromo acogía conciertos de muchas de las principales figuras del panorama artístico

baitziren han eta erreferente bat izaten baitzen gure hiria orduan.

internacional, haciendo de nuestra ciudad un referente.

Hala, aspalditik ari gara gu gauza hori eskatzen Gobernu Taldeari, horrelako kontzertuak hartzeko moduko tokiren bat egokitzeko aukera aztertu nahi zuela adierazi eta gero hark.

Desde hace tiempo ya, venimos inquiriendo al Equipo de Gobierno en relación a este asunto, tras manifestar su intención de estudiar la posibilidad de acondicionar alguno de los espacios de nuestra ciudad para poder albergar este tipo de conciertos.

Joan den urtearen hasieran, Udal Gobernuak esan zigun instalazioren bat (Belodromoa eta Illunbe, batez ere) egokitzeko aukera batzuk pentsatzen eta begiratzen ari zirela, zailtasun tekniko batzuk bazirela eta. Hala ere, proposatutako irtenbideak gainerako udal taldeei jakinarazteko konpromisoa hartu zuten, lanak egin abartzen zituztenean.

A comienzos del año pasado, el Gobierno Municipal nos decía que estaban reflexionando y analizando diversas posibilidades de adecuación de alguna de las instalaciones de nuestra ciudad (principalmente el Velódromo e Illumbe) para tal fin, pues había dificultades técnicas que superar. No obstante, se comprometieron a dar a conocer las soluciones propuestas al resto de Grupos municipales, una vez que hubieran avanzado en los trabajos.

Lanak ez zuela aurrera egiten eta ezeren azalpenik ere ez zutela ematen ikusita, berriz galdetu genion horren gainean Gobernu Taldeari. Hala, otsaileko batzordean, Kiroletako zinegotzi ordezkariak esan zuen aztertzen ari zirela —sustatzaile pribatu batzuen eskutik—, zer lan egin behar liratekeen Illunbeko zezen-plaza kontzertuak egiteko moduan jartzeko. Horrela, zinegotzi ordezkariak berretsi egin zuen ahaleginak Illunbe egokitzen ari direla egiten, eta Belodromoaren aukera alde batera utzita daukatela, nahiz eta aukera hori ere hor dagoen.

Ante la falta de avance en los trabajos, y de explicaciones debidas, volvimos a inquirir al respecto al Equipo de Gobierno. En la Comisión de febrero, el Concejal Delegado de Deportes comentó que estaban aún analizando, de la mano de promotores privados, qué actuaciones habría que realizar para acondicionar la plaza de toros de Illumbe para albergar conciertos. Confirma, por tanto, el Delegado, que los esfuerzos se están centrando en la posiblidad de acondicionar Illumbe, olvidando la posibilidad del Velódromo, que también está encima de la mesa.

Agintaldiaren azkenera ailegatzen ari gara, eta guk uste dugu bultzada handiagoa eman behar zaiola gai honi. Hori dela eta, hauxe da Talde Popularrak dakarren MOZIOA:

Estamos acabando el presente mandato, y entendemos necesario dar un mayor impulso a la cuestión, por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die, agintaldi hau

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia- San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de

amaitu baino lehen, ahalik eta azkarren egiteko hiriko ekipamenduren bat kontzertuak egiteko moduan egokitzeari buruzko ikerlanak eta azterketak egiteko, eta Udalean ordezkaritza duten talde politiko guztiei aurkezteko haiek gero.

Gobierno a que, antes de que finalice el presente mandato, y a la mayor brevedad, culminen los estudios y análisis oportunos sobre el acondicionamiento de algún equipamiento de la ciudad para albergar conciertos, y los presenten al conjunto de grupos políticos con representación municipal.

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

En Donostia/ San Sebastián, a 15 de Febrero de 2019

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**II.2.17. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, bizikleta publikoak alokatzeko den sistema dela eta.**

**II.2.17. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa al sistema de alquiler de bicicletas públicas en nuestra ciudad.**

"Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordea (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2019ko otsailaren 11n izan

"Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras y

zuen bileran bizikleta publikoak alokatzeko den sistemaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Agintaldi honetan denean, behin baino gehiagotan galdetu diogu guk Udal Gobernuari Donostian bizikleta publikoak alokatzeko daukagun sistemaz. Hala, 2015. urtearen erdialdean, aintzakotzat hartu genituen Gobernuak sistema —zituen aurrekariak eta ondorengo bilakaera zela eta— pasatzen ari zen estutasunen inguruan emandako azalpenak, sartu berria zelako Gobernua eta zerbitzuak bazuelako hobetu behar bat, donostiarrek merezi dugun zerbitzua izateko.

2016. urte guztian, zain egon ginen, pazientzia handiz, ea EAJren eta PSEren udal gobernuak noiz jarriko zituen konponbide batzuk mahai gainean eta noiz emango zion buelta gaizki pentsatu eta gaizki kudeatutako zerbitzu hari. Hasieran —aurreko agintaldian—, esan ziguten zentimorik ere ez zitzaiola kostatuko zerbitzua Udalari —munduan inon gertatu ez den gauza—. Gertatu, ordea, beste gauza bat gertatu da, eta urte mordoa daramagu zerbitzuari —eskasa— eta hura kudeatzen duen enpresari diruz laguntzen, hasieran beste aldera agindu bazuten ere.

Nahiz eta egia den kontu zehatz batzuk hobetu egin direla (esate baterako, bizikletak lotzeko puntuena eta txikizioena), beste gauza asko daude lau urte hauetan konpondu behar zirenak baina EAJren eta PSEren udal gobernuak konpondu nahi edo konpondu ezin izan dituenak. Konparazio baterako, hiriko goi aldeetako auzoei zerbitzu ematea —hiriko biztanleen erdia hor bizi da—, tarifak jartzea, esleipendunarekin sinatutako kontratuan adierazitako geltoki eta bizikleta guztiak izatea,

Servicios Urbanos, celebrada el día 11 de Febrero de 2019, relativa al sistema de alquiler de bicicletas públicas en nuestra ciudad.

JUSTIFICACIÓN

A lo largo del presente mandato, desde el Grupo Popular hemos venido inquiriendo acerca del sistema de alquiler de bicicletas públicas en nuestra ciudad. A mediados del año 2015, fuimos comprensivos con las explicaciones dadas por el Gobierno entrante en relación a las dificultades por las que atravesaba el servicio en aquel momento -atendiendo a los antecedentes y a la evolución posterior- y por las necesidades de mejora del servicio que merecemos los ciudadanos donostiarras.

Durante todo el año 2016 estuvimos esperando pacientemente a que el Gobierno Municipal PNV y PSE pusiera soluciones encima de la mesa, y diera la vuelta a un servicio mal ideado y mal gestado. En un origen, en el mandato anterior, se nos dijo que el servicio no iba a costar un sólo euro a las arcas municipales; una situación insólita en el mundo. Evidentemente, la realidad ha chocado con la ficción, y llevamos años subvencionando el servicio (deficiente), y a la empresa que gestiona el mismo, al contrario de lo prometido en un principio.

Si bien es cierto que algunas cuestiones concretas han mejorado (como las relativas a los anclajes y a los actos vandálicos contra las bicis), pero quedan pendientes de mejora muchas otras situaciones que debieran haberse solucionado en estos cuatro años, y que el Gobierno Municipal PNV- PSE no ha querido o no ha sabido gestionar, como la prestación del servicio a los barrios altos de la ciudad -donde reside el cincuenta por ciento de la población de la ciudad-, la tarificación, la

edota bizikleta arruntak izatea, goi aldeetako auzoetan ez delako bizikleta zerbitzurik ematen eta ordekan ibiltzeko ez baitago elektriko beharrik, eta erosteko eta kasu eginda edukitzeko garestiagoak dira elektrikoak.

disposición de las estaciones y bicicletas que constan en el contrato firmado con la empresa concesionaria; o de bicicletas convencionales ya que, para ir por llano -porque no se presta servicio a los barrios altos- no hace falta utilizar bicicletas eléctricas, más caras y con un mayor coste de mantenimiento.

2017an, Euskal Herriko Unibertsitateak emandako Garraio Sistemen Unibertsitate Masterreko ikasle batek egindako lan batean zuen itxaropena Gobernu Taldeak, “Donostiako bizikleta publikoaren sistemaren azterketa, hobekuntzak sartzeko eta kudeaketa-kostuak murrizteko” izenburupeko lanean.

En el año 2017, la esperanzas del Equipo de Gobierno estaban depositadas en un trabajo realizado por un estudiante del Máster Universitario en Sistemas de Transporte, impartido por la Universidad del País Vasco, con el título “Análisis del sistema de bicicleta pública de Donostia/San Sebastián para la introducción de mejoras y reducción de costes de gestión”.

Udal Gobernuari gai horren gainean galdetu arren, gertatu dena da bazter batera utzita dagoela dokumentu hori, eta oposizioko talde politikoei ez dietela ez sistema hobetzeko lanik ez eta sistema hobetu eta herritarri zerbitzu hobea emateko moduko pausuak zehazteko balioko lukeen ezeren fororen berri eman, eta herritarrak dira zerbitzuak dituen akatsak eta Gobernu honen kudeaketa txarra pagatzen dutenak.

Inquirido al respecto el Gobierno Municipal, la realidad ha sido que dicho documento ha sido obviado y que nunca se ha puesto en común con los grupos políticos de la oposición un trabajo de mejora o algún tipo de foro que pudiera determinar los pasos a dar para mejorar el sistema y procurar un buen servicio a los ciudadanos, paganos de los defectos del servicio y de la mala gestión de este Gobierno.

Hil honetan bertan, 2019. urtearen hasieran, agintaldia bukatzeko hilabete gutxi falta direla, Talde Popularrak zerbitzua definitzen eta etorkizuneko erronkak zehazten jarraitu nahi izan du. Udal Gobernu honek lau urte pasatu eta gero Mugikortasun zinegotzi ordezkariaren bidez eman duen erantzuna erabat etsitzeko modukoa izan da, ordea: “Ez daukat asko esaterik. Onartzen dut berandu gabiltzala, baina azkeneko fasean gaude eta laster aurkeztuko ditugu agiri berriak”.

Este mismo mes, a comienzos del año 2019, y a escasos meses de que finalice el mandato, desde el Grupo Popular hemos intentado seguir avanzando en la definición del servicio y en los retos de futuro. La decepcionante respuesta de este Gobierno Municipal, en boca de su Concejal Delegada de Movilidad ha sido la siguiente, casi cuatro años después: “No puedo decir mucho. Reconozco que vamos con retraso, pero estamos ya en la última fase y, en breve, presentaremos los nuevos pliegos”.

Egun batzuk geroago —komunikabideen bitartez, beste behin ere—, jakin dugu udal

Unos días después, y- una vez más, a través de los medios de comunicación-, nos

honek eten egin duela gure hirian bizikleta publikoen zerbitzua kudeatzen duen enpresarekin zeukan kontratua. Beste xehetasunen batzuk ere badatoz albistean, baldintza-agiri berrietan izan behar diren betebeharrei buruzkoak (erabiltzaileek eta talde politiko honek lehen ere ikusi eta aspertu arte salatutako betebeharrak besterik ez).

enteramos de que este Ayuntamiento ha rescindido el contrato con la empresa que gestiona el servicio de bicicletas públicas en nuestra ciudad. Se aportan detalles en la noticia sobre las necesidades que deben contener los nuevos pliegos que regulen el servicio en el futuro, y que coinciden con las necesidades ya detectadas y denunciadas por los usuarios y por este Grupo políticos hasta la saciedad.

Udal Gobernu honek hiritarrei eta talde politikoei bizkar emanda jardun du beste behin ere, eta ez dio toki handirik uzten horren harro esaten duen gardentasun heroiko horri, batere justifikatu gabe eta benetako munduarekin inolako kontrasterik egin gabe aritzen da eta. Hala, arazoak sortu ez baina, arazoak konpon ditzaten, hauxe da Talde Popularrak dakarren MOZIOA:

Una vez más, este Gobierno Municipal actúa de espaldas a la ciudadanía y a los grupos políticos, y deja escaso margen a la heróica transparencia de la que presumen sin justificación ni contraste alguno con el mundo real. En aras de que resuelvan los problemas en lugar de crearlos, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die ahalik eta azkarren ateratzeko, agintaldi hau amaitu aurretik, gure hirian bizikleta publikoak alokatzeko sistema arautuko duten baldintza-agiri berriak lehiaketara.

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia- San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, a la mayor brevedad, y antes de que finalice el presente mandato, saquen a licitación los nuevos pliegos de condiciones que van a regir el sistema de alquiler de bicicletas públicas en nuestra ciudad.

2.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die ahalik eta azkarren adierazteko Udaleko talde politikoei, agintaldi hau amaitu aurretik, gure hirian bizikleta publikoak alokatzeko sistema arautuko duten baldintza-agiri berriak izango dituen berritasunak.

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, a la mayor brevedad, y antes de que finalice el presente mandato, den cuenta a los Grupos políticos municipales de las novedades contenidas en los nuevos pliegos de condiciones que van a regir el sistema de alquiler de bicicletas públicas en nuestra ciudad.

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

En Donostia/ San Sebastián, a 15 de Febrero de 2019

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. José María Murguiondo Casal, D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**17. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 17:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (2) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 6 – EH BILDU.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (2) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 6 – EH BILDU.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**17. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 17:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 19 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

---------------

**II.2.18. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Amara Berriko Haurtxoko eta Gaztelekuaren baldintzak direla eta.**

“Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko otsailaren 11an Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2018ko azaroaren 3an, Amara Berriko Olaeta plazan jarritako barrakoietan ireki ziren auzoko haur eta gazteei zuzendutako Haurtxoko eta Gaztelekuaren zerbitzuak. Tarte honetan, hartzaile eta langileen kexa ugari jaso dira. Izan ere, jarritako barrakoiak ez dituzte haur, gazte eta langileen jarduerak gauzatzeko baldintzak betetzen.

Barrakoiak ez daude Haurtxokoan eta Gaztelekuan egiten diren ekimenen zarata sostengatzeko egokituak, lurra irristakorra da, lurzorua ez da sendoa eta honezkero, hartzaile eta langileengan ondorio kaltegarriak daude; langileen gaixotasunak edo eta behar berezietako haur eta gazteen parte hartzea bertan behera utzi behar izana, adibidez.

Laster lau hilabete beteko dira aipatutako zerbitzuak ireki zirenetik eta aurrez aipatutakoa gutxi balitz, otsailaren 15era arte gasolio sorgailu baten bitartez funtzionatzen egon dira. Honako neurri behin-behineko honen aurrean

**II.2.18. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a las condiciones del Haurtxoko y del Gazteleku de Amara Nuevo.**

“Naiara Sampedro Pérez, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción de control trae causa de la interpelación sustanciada ante la Comisión de Servicios a las Personas celebrada el 11 de febrero de 2019.

JUSTIFICACIÓN

El 3 de noviembre de 2018, se procedió a la apertura de los servicios de haurtxoko y gazteleku dirigido a niños, niñas y jóvenes en los barracones instalados en la plaza de las Ferrerías. En este tiempo, se han recibido numerosas quejas por parte de personas usuarias y trabajadoras, debido a que los barracones instalados no cumplen las condiciones adecuadas para llevar a cabo las actividades de niños, niñas, jóvenes y personas trabajadoras.

Los barracones habilitados no están preparados para amortiguar el ruido que generan las actividades que se desarrollan en el haurtxoko y en el gazteleku; el suelo es muy resbaladizo, el piso no es firme, y este hecho ya ha tenido consecuencias perjudiciales para las personas usuarias y trabajadoras: se han registrado enfermedades laborales y se ha tenido que cancelar la participación de niños, niñas y jóvenes con necesidades especiales.

Pronto se cumplirán cuatros meses desde que se procediera a la apertura de estos servicios, y, por si lo anteriormente señalado fuera poco, hasta el 15 de febrero han estado funcionando con un generador de gasóleo. Teniendo en

ez dugu ulertzen nola ez den epe laburragoan argindarraren kontraturik bideratu eta gasoliozko sorgailua erretiratu.

cuenta que ésta era una medida provisional, no entendemos por qué no se ha procedido antes a la tramitación del contrato de suministro eléctrico y a la retirada del generador.

Honi guztiari erantzun bat eman nahian, jakin dugunaren arabera, aste honetan bertan, barrakoietako sabaian soinua xurgatzeko babesa jartzen hasi dira, hala ere, dagoeneko Udal Gobernuak haur eta gazteei zuzendutako zerbitzuetan edukiera mugatzea erabaki du. Hau da, hartzaileen parte hartzea mugatzea, familiak baldintzatzea eta langileei heziketa programa oztopatzea.

Según hemos podido saber, esta misma semana, con el propósito de dar una respuesta a esta situación, se ha empezado a colocar una protección en el techo de los barracones para amortiguar el ruido. A pesar de ello, el Gobierno Municipal ha decidido limitar el aforo de los servicios dirigidos a niños, niñas y jóvenes. Es decir, se ha limitado la participación de las personas usuarias, se ha condicionado a las familias y se ha obstaculizado el desarrollo del programa educativo.

Hori guztia dela eta, aurkezten dut honako

En base a cuanto antecede, la concejala que suscribe formula la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Amarako Haurtxokoan eta Gaztelekuaren kudeaketan ardura duten udal barneko atalarekin eta zerbitzuko kudeatzailearekin batera, barrakoiek dituzten hutsuneak aztertu ditzala, segurtasuna eta irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak identifikatuz eta ahalbidetuz.

1.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que analice, junto con el departamento municipal responsable de la gestión del haurtxoko y del gazteleku de Amara y con la gerencia de este servicio, las carencias que presentan los barracones, de manera que se identifiquen y se posibiliten las medidas precisas para garantizar la seguridad y accesibilidad de estas instalaciones.

2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari identifikatutako hutsuneak ahalbidetzen direnean, haur eta gazteei zuzendutako zerbitzuak lehen zuten aforora bueltatzeko zer egin behar den aztertzeko eta, horren arabera, heziketa programa gehiago ez oztopatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, cuando se solventen las carencias identificadas, analice las acciones a emprender para recuperar el aforo de los servicios dirigidos a niños, niñas y jóvenes, y a que, como consecuencia de ello, adopte las medidas precisas para no impedir el desarrollo de los programas educativos.

Donostian, 2019ko otsailaren 18an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián, 18 de febrero de 2019

Naiara Sampedro Pérez,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Naiara Sampedro Perez andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/la señor/a D.ª Naiara Sampedro Pérez y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.19. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, zuzkidura bizitokien eskatzaileen zerrenda eguneratu eza dela eta.**

"Ricardo Burutaran Ferré EH Bildu taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluaren babesean, zuzkidura bizitokien eskatzaileen zerrenda eguneratu ezari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten dut, Udalbatzak azter dezan. Interpelazioa mozio baten ondorio da, joan den otsailaren 11n Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean egindakoarena.

JUSTIFIKAZIOA

Ekainaren 18ko 3/2015 Legeak, Etxebizitzari buruzkoak, amaiera eman zion etxe babestuak edo zuzkidura bizitokiak esleitzeko zozketa sistemari. Zehazki, Legearen Hirugarren

**II.2.19. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre la falta de listas actualizadas de demandantes de apartamentos dotacionales.**

"Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, sobre la falta de listas actualizadas de demandantes de alojamientos dotacionales. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 11 de febrero.

JUSTIFICACIÓN

La Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda pone fin al sistema de sorteo para acceder a las viviendas protegidas o alojamientos dotacionales. Concretamente la Sección

Sekzioak adierazten du zer prozedura erabili behar den etxebizitza esleitzeko.

Tercera de la Ley determina cuál tiene que ser el procedimiento de adjudicación que se tiene que seguir para su adjudicación.

Beraz, legea onartu zenetik, errotik aldatu ziren ordura arte etxebizitza edo apartamentu babestuak esleitzeko erabili ziren sistemak. Horrek eskatzen duenez, baremazio irizpide batzuk onartu beharra dago, izena ematen duten pertsonek eskaerak balioztatuta ikusteko.

Desde la aprobación de dicha Ley por tanto, cambian de una manera radical los sistemas seguidos hasta la fecha para la adjudicación de productos de viviendas o apartamentos protegidos. Ello exige la aprobación de unos criterios de baremación que permita a las personas que se apuntan que vean valoradas sus solicitudes.

Horrela, eskaerak baremoaren arabera balioztatzean, hainbat irizpide hartuko dira kontuan: hala nola errenta, eskatzailearen antzinatasuna, etab. Legea betetzeko, ezinbestekoa da baremazio irizpideak onartzea.

De esta forma se baremarán las peticiones teniendo en cuenta criterios como la renta disponible, la antigüedad como demandante u otras que puedan determinarse. La aplicación efectiva de la Ley exige que se aprueben los criterios de baremación.

Zuzkidura apartamentuen kasuan, gaiak premia handiagoa du, alde batetik, bizitokia aldi baterako okupatzen delako; bestetik, kontuan izan behar delako nortzuk diren onuradunak: gazteak eta adindunak.

En el caso de los apartamientos dotacionales la cuestión es todavía más urgente, de un lado al ocuparse con un marcado carácter temporal, de otro teniendo en cuenta los colectivos sociales a los que actualmente se está dirigiendo los mismos: jóvenes y mayores.

Kontua da libre gelditzen diren gazteen edo adinekoen apartamentuak ez direla berriro okupatzen edo esleitzen baremazio sistemaren arabera, ez dagoelako ebaluaziorako udal irizpiderik.

Lo cierto es que los apartamentos de jóvenes o de mayores que van quedando libres no se están ocupando o adjudicando teniendo en cuenta el sistema de baremación al carecer de criterios municipales para poder ponderar las mismas.

Gaiari buruz udal Gobernuari galdetu ondoren, udal Gobernuak onartu zuen pertsona gazte zein nagusiak, zuzkidura apartamentu bat lortzeko izena ematen ari zirenak, “ez daudela sailkatuta”, alegia, ez dietela esan zein lekutan dauden zerrendetan.

Interpelado al respecto el gobierno municipal, el gobierno municipal admitió que las personas, jóvenes y mayores, que estaban dando sus nombres para optar a un apartamento dotacional no se “hallan posicionadas”; es decir, no se les puede decir qué lugar ocupan en las listas.

Eskabideak baremoaren arabera balioztatzeko

Para intentar explicar la demora producida en

irizpideak onartzerakoan izandako atzerapena esplikatzeko, 42 hilabete baino gehiago, ezin da argudio-aitzakiatzat erabili Etxebizitza Legearen zenbait aginduk Konstituzio Auzitegian errekurtsoa jarrita izatea. Eta hala da udal Gobernuak berak eraman zuelako Donostiako Etxegintzara irizpide batzuk aplikatzea, Txomineneko etxebizitza tasatuen eskaerak baremo baten arabera balioztatzeko.

Hori dela eta, hauxe da nire KONTROL MOZIOA

1. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari, ahalik eta denbora laburrenean, elkarteei eta adinekoen zuzkidura bizitegien eskatzaileen eskaerak baremo baten arabera sailkatzeko irizpide bat emateko taldeei, behin betiko onartu baino lehen, hobetzeko proposamenak egiteko prozesu bata bian jarrita.

2. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari aztertzeko zein prozedura jarraitu behar den gerta daitezkeen bizitegien inguruko larrialdi egoeretan, inguruabarrak balioetsi ondoren, pertsona bakoitzaren premietarako eta egoerarako egokia den bizileku irtenbide bat aukeratzeko.

3. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari beste deialdi bat abiarazteko, gazteentzako eta adineko pertsonentzako zuzkidura bizitokien eskatzaileentzat.

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

Sinatua: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldearen zinegotzia".

la aprobación de los criterios para baremar las solicitudes, más de 42 meses, no puede recurrirse al argumento-excusa del recurso al Tribunal Constitucional de determinados preceptos de la Ley de Vivienda. Y ello es así ya que el propio gobierno municipal llevó a Donostiako Etxegintza la aplicación de unos criterios para poder baremar las demandas a las viviendas tasadas de Txomin Enea.

A la vista de todo ello presento la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al gobierno municipal a que, en el menor tiempo posible, entregue a los grupos una propuesta de criterios a utilizar para baremar las solicitudes de demandantes de alojamientos dotacionales de jóvenes y de personas mayores, abriendo un proceso para la realización de propuestas de mejora de las mismas de forma previa a su aprobación definitiva.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al gobierno municipal a que contemple el procedimiento a seguir ante las situaciones de emergencia habitacional que puedan producirse para poder optar, previa valoración de dichas circunstancias al acceso a una solución habitacional adecuada a sus necesidades y situación.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al gobierno municipal a que se proceda a la apertura de una nueva convocatoria de demandantes de alojamientos dotacionales para jóvenes y para personas mayores.

En Donostia a 15 de febrero de 2019

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del grupo municipal de EH BILDU"

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutaran Ferré, D. Loïc Alejandro y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.20. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Metro pasantearen obren eragina dela eta.**

"Ayem Oskoz Urrutikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, kontrol mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko abenduaren 10ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

AZALPENA

Azken aste eta hilabete hauetan, Metro pasantearen obrek aurrera egin dute eta obra horiek Donostiako bizilagunengan eraginak izaten ari dira, horietako asko kaltegarriak, deskantsu falta, zarata edota bibrazioengatik, edota aire kutsadura etab. Horrela salatu zuen adibidez azaroaren 27an Satorralaiak, prentsaurreko baten bitartez, hainbat bizilagunek Morlans, Paseo de la Fe, Aizkorri, Zarautz etorbidean, Zubieta kalean etab. pairatutako kalteen berri emanez. Gerora

**II.2.20. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre las obras de la pasante del Metro.**

"Ayem Oskoz Urrutikoetxea, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción de control, para que sea tratada en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Espacio Público celebrada el 10 de diciembre de 2018.

JUSTIFICACIÓN

Durante las últimas semanas y meses, las obras de la pasante del Metro han avanzado. Estas obras están afectando de diversas formas a los habitantes de San Sebastián, siendo algunas de estas afecciones nocivas. Podemos citar la falta de descanso, por ruidos o vibraciones, la contaminación atmosférica, etc. Así lo denunció, por ejemplo, el 27 de noviembre Satorralaia, mediante una rueda de prensa, en la que informaron de los daños soportados en Morlans, Paseo de la Fé,

gehiago egon dira, orain dela egun batzuk prentsan ikusi genuen bezala Zarautz hiribideko 33 zenbakian dagokionean.

Aizkorri, avenida de Zarauz, calle Zubieta, etc. Posteriormente, ha habido más quejas, tal y como leíamos hace unos días en la prensa, en referencia al nº 33 de la avenida de Zarauz.

Horri gehitu behar zaio administrazio publikoek kexa hauen aurrean erakutsi duten utzikeria larria, herritarren osasuna eta ongizatea bermatzeko erakunde ezberdinek eta udal honek berak legez duten erantzukizuna behar den bezala bete ez dutelarik, Arartekoak 2018ko urriaren 23an afera honen inguruan eman duen ebazpenaren irakurketak berresten duen moduan.

A ello hay que añadir la grave falta de interés que han demostrado las administraciones públicas ante estas quejas, puesto que no han cumplido su responsabilidad legal de garantizar la salud y el bienestar de la ciudadanía −algo que corresponde tanto a las diferentes instituciones como al Ayuntamiento−, tal y como lo corrobora la lectura de la resolución del Ararteko del 23 de octubre del 2018, que trata de este asunto.

Ados gaude udala dela administrazio publikoetan hiritarrekiko gertuena eta zentzu horretan Donostiako Udalak, Udal gobernua buru, hiriko bizilagunen bizi-kalitateari eragiten dioten gaietan erantzun bat emateko gai izan behar duela.

Estamos de acuerdo con que el Ayuntamiento es la administración pública más cercana a la ciudadanía y, en este sentido, el Ayuntamiento de San Sebastián, con el Gobierno Municipal a la cabeza, debe ser capaz de dar una respuesta en temas que afectan a la calidad de vida de las personas que viven en nuestra ciudad.

Egia da, ordea, obren zarata dela eta, Udaltzaingoak herritarren kexen aurrean neurketa batzuk egin izan dituela, baina betiere aipatutako prentsaurrekoa, Satorralaia bizilagunen mugimenduak, eman eta hurrengo egunetik aurrera. Geroztik Udaltzaingoak egin dituen neurketa horietan legezkoak direna baino dezibelio altuagoak eman dituzte, bibrazioa eta zaratek eragindako kutsadura akustikoaren gaineko ordenantza urratuz, beraz. Honi buruz galdetuta Udal arduradunek erantzun ziguten trenbideko arloko obrak interes orokorrekoak direnez ez dutela zertan gehienezko zarata maila horiek kontuan izan behar. Guk baieztapen hori zalantzan jartzen dugu ordea, obra hauek hiri barruan egiten ari diren heinean Udal ordenantzen menpe ere baitaude.

Es cierto que, debido a los ruidos originados por las obras, la Guardia Municipal ha realizado mediciones ante las quejas de los ciudadanos, pero siempre a partir del día siguiente a la rueda de prensa ofrecida por el movimiento vecinal Satorralaia, que hemos citado antes. Las mediciones realizadas por la Guardia Municipal a partir de ese momento, han dado como resultado algunos decibelios mayores que los permitidos por la ley, con lo que ha quedado demostrado que se vulnera la ordenanza sobre contaminación acústica por ruidos y vibraciones. Preguntados a este respecto, los responsables municipales nos respondieron que, las obras de sector ferroviario son obras de interés general y, por tanto, no hay por qué tener en cuenta los niveles máximos de ruido. Sin embargo, nosotros ponemos en duda esta afirmación, ya

que las obras se están llevando a cabo en la propia ciudad, por lo que también están sujetas a las ordenanzas municipales.

Zinegotzi Delegatuak azkenean erantzun zigun noski udal gobernu honek udal ordenantzak betearaziko dituela.

Finalmente, el concejal delegado nos respondió que por supuesto que este gobierno municipal hará cumplir las ordenanzas municipales.

Obra batek eragozpenak sortzen dituela ulergarria da baina metro pasantearen obren aurrean udal gobernu honen jarrera salagarria da guztiz. Hiru aspektu aipatuko ditut, lehena hiritarrei proiektu honi buruz iritzia emateko aukera ukatzea (sinadurak jaso ostean eta pertzepzio inkestek aurkakotasuna adierazten dutenean), bigarrena, Donostiako eta Donostialdeko mugikortasun beharrak aztertu gabe proiektu honen lehentasuna babestea beste edozeren gainetik, eta hirugarrenik, hiritarrak obra honen ondorioz jasaten ari diren eraginen aurrean entzungorrarena egitea, hau guztia obra hau interes publikokoa den aitzakipean; eta horrek esan nahi omen du edozer gauzak balio duela obra hau aurrera ateratzeko.

Es comprensible que una obra genere molestias, pero ante las obras de la pasante del metro, la actitud de este gobierno municipal es absolutamente denunciable. Voy a citar tres ejemplos: el primero, se ha negado a la ciudadanía la posibilidad de dar su opinión sobre este proyecto (una vez que se habían recogido firmas y de que las encuestas de percepción mostraban que la postura era contraria); el segundo,  se ha defendido dar prioridad a este proyecto por encima de todo, sin estudiar las necesidades de movilidad de San Sebastián y su entorno, y, en tercer lugar, se hacen oídos sordos ante las quejas que presenta la ciudadanía por las afecciones que está sufriendo a causa de las obras. Todo ello con la sola excusa de que se trata de una obra de interés público. Y lo que esto significa, realmente, es que todo vale a la hora de sacar esta obra adelante.

Honegatik guztiagatik honako Kontrol Mozio hau aurkezten dut:

Por todo ello, presento la siguiente moción de control:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Metroaren obrek hiriko bizilagunei eragindako kalteak direla eta Udalaren aurrean aurkeztutako kexak eta salaketak izapidetu ditzala eta metroaren obrak egiten ari diren enpresen jarduerarekin udal zerbitzuek etengabeko jarraipena egin dezatela: Hau da Donostiako bizilagunen eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a tramitar las quejas y denuncias presentadas al Ayuntamiento respecto a los perjuicios causados por las obras del Metro a los vecinos y vecinas de la ciudad, así como a que los servicios municipales realicen un seguimiento permanente de la actividad de las empresas que están realizando las obras del metro. Es

har ditzala.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Euskal Trenbide Sareak (ETS) delakoarekin batera Donostian eta Donostialdean dituen egitasmoak eta lehentasunak berrikus ditzala, hain zuzen ere Donostiaren eta Donostialdearen onurarako eskualdeko egungo trenbide sarea hobetzeko bai Altza-Galtzaraborda jarraipenari, bai Topoaren eta ADIFen aldiriko trenbideen artean Erriberetan aurreikusitako Interkanbiadorea sustatzeko ekintzei lehentasuna emanez.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriak garraio arloan dituen beharren inguruan etorkizunari begirako azterketa-lan bat agintzeko, irizpide jasangarrietan oinarrituta eta hirian dauden garraio ezberdinak kontuan izanda.

4.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari Donostian garraio publikorako soluzio egokienari buruz herritarren parte hartzea bideratzea eta galdeketa egitea, hiriko busa eta garraiobide honen bilakaera kontuan hartuta.

5.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eskaera egin diezaiola Eusko Jaurlaritzari Donostiako Metro-pasantearen eraikuntza-lanak erabat geldi ditzan, hirigunean obrak jada eragiten dituen afekzio larriez gain, egitasmoa hiriko garraioaren eta mugikortasunaren hobekuntzari begira justifikaziorik gabekoa delako.

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

decir, que se adopten todas las medidas necesarias para garantizar los derechos de las personas que viven de San Sebastián.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a revisar, junto con ETS (Red Ferroviaria Vasca), los proyectos y prioridades que tiene en cuanto a San Sebastián y su entorno, para mejorar la actual red ferroviaria comarcal en estas zonas, dando prioridad tanto a la continuación de Altza-Galtzaraborda como a las acciones para promover el intercambiador para el Topo y los trenes de cercanías de ADIF, previsto para Riberas.

3.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a encargar un estudio prospectivo sobre las necesidades de la ciudad en materia de transportes, basado en criterios sostenibles y teniendo en cuenta los distintos transportes existentes en la ciudad.

4.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a hacer posible la participación ciudadana en la búsqueda de la solución más adecuada para el transporte público en San Sebastián, así como a hacer una consulta, teniendo en cuenta el autobús urbano y la evolución de este medio de transporte.

5.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a solicitar al Gobierno Vasco que paralice totalmente las obras de construcción de la pasante del Metro de San Sebastián, porque, además de las graves afecciones que ya están produciendo en el núcleo urbano, se trata de un proyecto que no se justifica en la mejora del transporte y de la movilidad en la ciudad.

San Sebastián, 15 de febrero de 2019

Ayem Oskoz Urrutikotxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Ayem Oskoz Urrutikoetxea,
concejal del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak, Amaia Martin Garin andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea, D.ª Amaia Martín Garín, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**20. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 20:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**20. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 20:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**20. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 20:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **BAZTERTUA.** | **RECHAZADO.** |
| **GEHIENGOA.** | **MAYORÍA.** |
| **ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.** | **VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.** |
| **AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.** | **VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.** |
| **ABSTENTZIOAK: 0.** | **ABSTENCIONES: 0.** |

**20. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 20:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **BAZTERTUA.** | **RECHAZADO.** |
| **GEHIENGOA.** | **MAYORÍA.** |
| **ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.** | **VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.** |
| **AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.** | **VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.** |
| **ABSTENTZIOAK: 0.** | **ABSTENCIONES: 0.** |

**20. KONTROL MOZIOAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 20:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **BAZTERTUA.** | **RECHAZADO.** |
| **GEHIENGOA.** | **MAYORÍA.** |
| **ALDEKO BOTOAK: 6 – EH BILDU.** | **VOTOS A FAVOR: 6 – EH BILDU.** |
| **AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.** | **VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.** |
| **ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.** | **ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.** |

---------------

**II.2.21. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Aldakoenea eremuko hirigintza plangintza aldatzea dela eta.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu, eta KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Aldakoenea eremuko hirigintza plangintza aldatzea dela eta. Mozio hau joan den otsailaren 11n Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Hedabideen bidez jakin dugunez, Udalak eta Kutxak ustez akordio bat egin dute Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko; zehazki, Mandasko Dukearen pasealekuak, Konkorronea kaleak eta Aldapetako aldapak zedarritutako 45.000 metro koadroko eremu batean esku hartzeko.

Albisteak dioenez, eragiketaren barruan sartzen da Kutxaren partzela zabal baten hirigintza berriz kalifikatzea ere (gaur egun Nazaret ikastetxeari dagokion eremua). Alegia, proposamen horrek gainbalio handi bat sortuko dio Kutxari.

Albistearen arabera, plangintzaren egiturazko aldaketak ez die soilik eragingo Kutxaren eta Udalaren titulartasuneko lursailei. HAPOren aldaketak “eragina” izango du Presentación de María ikastetxean (eraikina botatzea ere aurreikusi da), bai eta inguru horretako etxebizitza, lokal eta garajeetako jabe txiki

**II.2.21. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre la modificación del planeamiento urbanístico en el ámbito de Aldakoenea.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, sobre la modificación del planeamiento urbanístico en el ámbito de Aldakoenea. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 11 de febrero.

JUSTIFICACIÓN

A través de los medios de comunicación hemos podido conocer del, al parecer, acuerdo llegado entre el Ayuntamiento y la Kutxa para modificar el Plan General de Ordenación Urbana para intervenir en una zona de 45.000 metros cuadrados delimitada por las calles Duque de Mandas, Konkorrenea y la cuesta de Aldapeta.

En dicha noticia se dice que la operación incluirá asimismo la recalificación urbanística de una extensa parcela de la Kutxa, correspondiente actualmente al centro de Estudios Nazaret. Es decir, la citada propuesta generará a Kutxa unas plusvalías más que considerables.

La citada noticia también informa de que, dicha modificación de planeamiento estructural, no sólo se refiere a los terrenos titularidad de la Kutxa y del Ayuntamiento. La modificación del PGOU “afectara” al Colegio de la Presentación de María (hasta el punto de prever su derribo); así como a numerosos

ugariengan ere, haien jabetzak antolamendutik kanpo uztea “erabaki” baita. Areago, 57 bizilagunek utzi beharko dituzte beren etxeak.

pequeños propietarios de viviendas, locales y garajes en la zona que verán como se “acuerda” que sus propiedades queden fuera de ordenación. Es más incluso llega a cifrar en nada menos que en 57 los vecinos que tendrán que salir de sus domicilios.

Harrigarria da Kutxak eta Udalak (gobernu taldea) eginiko ustezko akordio batek horrenbeste jaberen etorkizuna baldintzatzea eta jende horri guztiari txintik ere ez esatea eta ez azaltzea zer beharrek bultzatzen duten etxebizitza, garaje eta negozio horiek guztiak antolamendutik kanpo uztera.

Sorprende que merced a un supuesto acuerdo entre Kutxa y Ayuntamiento (equipo de gobierno) se pretenda negociar la suerte de múltiples propietarios a los que hasta la fecha no se les ha explicado las razones o justificaciones que motivan la necesidad de que su casa, garaje o negocio queden, o pueden quedar, fuera de ordenación.

Ez dirudi jokamolde hori bat datorrenik parte hartze bidezko hirigintza bat bultzatzeko asmoarekin.

No parece precisamente que, dicho proceder, vayan en la línea de procurar lo que se conoce como un urbanismo participativo.

Horri buruz interpelatuta, Udal Gobernuak onartu zuen “Kutxarekin negoziatu dutela”, eta lortutako akordioak hainbat jabe partikularren etxe, lokal eta garajeei eragingo diela, baita Presentación de Maria ikastetxeari ere. Hala ere, ez zion erantzun eragiketa horrek Kutxari edo Kutxa Fundazioari ekarriko dion gainbalioari buruz egindako galderari.

Interpelado al respecto el gobierno municipal admitió que efectivamente se “había negociado con Kutxa”, que como consecuencia del acuerdo llegado con Kutxa, se afectaban a distintas casas, locales y garajes de propietarios particulares, así como al Colegio Presentación de María. Sin embargo la pregunta sobre cuál era la estimación que se hacía de las plusvalías que la citada operación generaría a Kutxa o Fundación Kutxa quedó sin contestar.

Ez zuen azaldu, ezta ere, zergatik erabaki duten Kutxarekin edo Kutxa Fundazioarekin 57 etxe partikular, negozio lokalak, garajeak eta are itunpeko ikastetxe bat eraistea, aldez aurretik jabeen iritzia kontuan hartu gabe. Areago, hori azaltzeko, “oreka ekonomiko-finantzarioa” aipatu zuen, gobernu taldeak erabaki duela ingurunea hobetzeko ekarpenik ez egitea; horrez gain, “dirua biltzeko” ideia ere aipatu zuen. Jakina, ezin gara bat etorri jarraitu den prozedurarekin.

No se explicó tampoco, en ningún momento, los motivos por los que se había decidido “acordar” con Kutxa o Fundación Kutxa, el derribo de 57 casas particulares, locales de negocio, garajes e incluso de un colegio concertado sin haber contado previamente con la opinión de las personas propietarias de los mismos. Es más, para explicar ello, recurrió a la búsqueda del “equilibrio económico financiero”, a la decisión del equipo de gobierno de no querer realizar aportaciones municipales a la mejora del entorno, así como

a la idea de “recaudar”. Obviamente no podemos compartir el procedimiento seguido.

Hori dela eta, hauxe da nire KONTROL MOZIOA:

A la vista de todo ello presento la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ez dezala jarraitu Aldakoenea eremuko plangintza aldatzeko lanekin, eragiketa hori behar bezala kontrastatu arte eta erasandako pertsonen iritzia bildu eta kontuan gabe.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta la gobierno municipal a no seguir con los trabajos para la modificación del planeamiento en el ámbito de Aldakoenea hasta contrastar debidamente la misma, así como a recoger y tener en cuenta la opinión de las personas afectadas por la citada operación.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azter dezala gaur egun Nazaret zentroa dagoen ekipamendu pribatuko partzela erosteko aukera.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta asimismo al gobierno municipal a estudiar la adquisición de la parcela del equipamiento privado ocupado actualmente por el Centro Nazaret.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Aldakoenean egin beharreko eragiketaren ondoriozko obligazioak ez ditzala eraman Kutxa Fundazioak Altzako Eraikuntzaren Institutua zenaren eremuan dituen lursailetara.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al gobierno municipal a no trasladar obligaciones derivadas de la operación a realizar en Aldakoenea a los terrenos que Fundación Kutxa tiene en el antiguo Instituto de la Construcción de Altza.

Donostia, 2019ko otsailaren 15a

En Donostia a 15 de febrero de 2019

Sin: Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del grupo municipal de EH BILDU”.

Sin: Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del grupo municipal de EH BILDU”.

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutaran Ferré, D. Loïc Alejandro y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**

**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.22. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Mandasko Dukea dela-eta.**

“Alderdi Popularreko zinegotzi naizen José Luis Arrue Pintó honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkezten dut, Udalbatzak azter dezan, 2019ko otsailaren 11n izandako bilkuran Zerbitzu Orokorretako Batzordeak Mandasko Dukearen gainean aztertutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den urteko urtarrilaren 25eko osoko bilkuran, kontrol mozio bat aurkeztu zuen gure taldeak, Fermin Lasala y Collado Mandasko Duke donostiar ospetsuaren heriotzaren mendeurrena oroitzea zela eta, 1917. urtearen amaieran hil baitzen Donostiaren ongile handia izan zena.

Aho batez onartu genuen mozioa bilkura hartan. Hala ere, onartutako testuan adierazi bezala, ez dakigu joan den urtean inolako ekitaldi publikorik egin denik “Fermin Lasala y Colladoren irudia aitortzeko, ekitaldi ireki bat, horren donostiar ospetsuaren irudiari dagokion balioa emateko”.

Batzordean jakinarazi zigutenez, ekitaldi bat

**II.2.22. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa al aniversario del Duque de Mandas.**

“D. José Luis Arrue Pintó, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios Generales, celebrada el día 11 de Febrero de 2019, relativa al aniversario del Duque de Mandas.

JUSTIFICACIÓN

En el Pleno del 25 de enero del pasado año, nuestro Grupo presentó una Moción de Control en relación a la conmemoración del centenario del fallecimiento del ilustre donostiarra Fermín Lasala y Collado, Duque de Mandas, que murió a finales de 1917, y que fue un gran benefactor de su ciudad.

La Moción fue aprobada por unanimidad en dicha sesión. Sin embargo, como se apuntaba en el texto aprobado, no tenemos constancia de que, a lo largo del año pasado, haya tenido lugar ningún “acto público de reconocimiento a la figura de don Fermín Lasala y Collado, abierto a la ciudadanía, y en el que se ponga en valor la figura de tan ilustre donostiarra”.

En la Comisión se nos informó que estaba

aurreikusita zegoen Udalbatza Aretoan, Donostiako bi idazle ospetsuren eskutik, Donostiako eraikin bereziei eta hiri ondareari buruzko hainbat paratu baitituzte.

Agintaldi hau amaitzeko hilabete gutxi falta direla, eta egintza hau egitearekin bat dagoela, Talde Popularrak honako MOZIO hau egiten du

1. Hertsatuki eskatzen die Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari behar besteko denboraz adierazteko udal taldeei zein herritarrei zein egun eta ordutan izango den ekitaldia.
.

2. Hertsatuki eskatzen die Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari ekitaldi hori streaming bidez edo geroago grabatuta emateko aukera aztertzeko, kontuan izanda herritarren intereseko gaia dela eta Osoko Bilkuren Aretoak leku kopuru mugatua duela.

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

Jose Luis Arrue Pintó,
Talde Popularreko zinegotzia".

previsto un acto en el Salón de Plenos a cargo de dos escritores muy conocidos donostiarras que han escrito diversos libros sobre edificios singulares y patrimonio urbano de nuestra ciudad.

A pocos meses de que finalice el presente mandato, y compartiendo que se celebre este acto, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, informe con la debida antelación tanto a los Grupos Municipales como a la ciudadanía en general de la fecha y hora en que tendrá lugar.

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, estudie o analice la posibilidad de que este acto pueda ser retransmitido en streaming o grabado para su posterior difusión, habida cuenta que es una cuestión de interés ciudadano y contando con el limitado aforo que tiene el Salón de Plenos.

En Donostia/ San Sebastián, a 15 de Febrero de 2019

José Luis Arrue Pintó
Concejal Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Luis Arrue Pinto jaunak eta Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/la señor/a D. José Luis Arrúe Pintó y D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**22. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 22:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**22. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 22:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 20 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 5 – EH BILDU.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 20 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 5 – EH BILDU.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO LAURAK ETA HEMEZORTZIAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS DIECISÉIS HORAS Y DIECIOCHO MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:**